

PuLunPe

159. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA





**Norbaiti ulertzen duen
hizkuntza batean
hitz egiten badiozu,
haren burura iritsiko zara;
bere hizkuntza propioan
hitz egiten badiozu, berriz,
bihotzera iritsiko zara.**

NELSON MANDELA

Pablo Roman, Erbitiko **banatzailea**:



Zenbat denbora daramazue Erbitin?

Ia zortzi urte daramatzagu. 2009ko uztailean etorri ginen Erbitira, Ibai semea jaio baina urte eta erdi lehenago.

Eta nondik zentozten?

Mendillorri egon ginen denboralditxo bat, eta Madrildik etorri ginen gero. Han bizi izan ginen azken urteotan. Ni Salamancakoa naiz, eta Rakel Burgosko Aranda de Duerokoa da.

Nola izan zen integrazioa?

Ongi, arazo nabarmenik gabekoa. Garro familiak asko lagundu gintuen, Pakitak bereziki. Garai hartan ez genuen inor ezagutzen, eta laguntza esker-garria izan zen. Ibai jaio zenean bere etxera ere joaten ginen neguan. Beraz, orokorrean ongi, herri txikiek eskatzen duten denborarekin, baina gustura.

Eta aldizkaria banatzen zenbat urte?

Bada, ez dut ongi gogoratzen, baina bost urte inguru izanen dira aldizkaria herrian banatzen hasi nintzela.

Ez duzue euskaraz ulertzen, baina banatu egiten duzue. Eta etxean ere begiratu edo egiten duzue?

Hori da, bai. Bereziki argazkiak kuriositate handiarekin ikusten ditugu, eta betiere interesgarria izan daitekeen artikuluren bat ikusten badugu, lagun bati esaten diogu itzulpenean laguntzeko. Orduan, beti, hilero ahal bezala irakurtzen dugu Pulunpe.

Zenbat etxe zarete Erbitin?

Bada, ez dakit ziur, baina 22 biztanle edo izanen gara urtean.

Eta egurraren negozioa nola doa?

Ongi, ongi. Zailtasunen aurka borrokatzen beti bezala, baina gaizki-gaizki ere ez doa. Beharrarengatik sortu zitzaidan lan hau eta lanean oraindik. Hirugarren urtea da lan honetan.

Eta bezero gehienak, eskualdekoak?

Ez pentsa. Askok bai Aizarotz eta ingurukoak dira, baina Berriogoitikoak, Lekunberrikoak, Arbizukoak, Iruñekoak eta beste herri batzuetakoak ere ateratzen zaizkit. Nahiko zabala da bezero espektroa.

**PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO
ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA**

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Arantxa Puignau eta Iosu Martinez.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016KO ABENDUAREN 2AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.

Nafarroako  **Gobierno**
Gobernua **de Navarra**

Erakusketak

ARGAZKIAK CARLOS IRIBARREN

Urtarrilaren 3tik - otsailaren 3ra

Carlos Iribarrenek hainbat lurraldeetatik egindako espedizioen argazki bilduma. Cachemira, Landak, Marruecos, Pakistan eta Nepal era bidaiatuko dugu txuri beltzeko argazki hauekin. Gaiak: mendia eta etnia.



ERAKUSKETA:

eta Kontuz! rekin

19:00 LARRAINTZAR 20 EUSKERAZ (resumen en castellano)

Solasaldia - Lur Gil

Brasil: Lurraren borrokaren jokaleku / Lurrik gabeko nekazariek gobernu kolpistaren aurka

Brasilgo MSTk (Lurrik gabeko nekazarien mugimendua) gonbidatuta, Brasilgo egoera, luraren banaketak daukan garrantzia, Landa Erreformaren aldeko borroka eta MSTren antolaketa eredu zein gauek egungo borroka ezagutu zituen. Azken egunetan MSTrekin batera Colónbira joan zen herri mugimenduen asanblada kontinentalera. Bertan kontinente osoko estrategia askatzaile bat eztabailetu zuten 100 herri mugimendu baino gehiagok. Brasilgo lurren %90 lurjabe handien esku daude. Agronegozooa egiteko erabiltzen dute, eta lurarentzat zein pertsonentzat oso kaltegarria den eredu erabiltzen dute: monokultibo masiboa eta agrotokioak.

19:00 LARRAINTZAR 27

Kontzertua "Dudumbé Percussion Group"

Dudumbé Percussion Group" taldea, Salvador Tarazonaren elkimenez 2008an sortua, Nafarroako Goi Mañako Musika Kontserbatorioriko ikasle eta irakasle batzuek osatzen dute. Haien helburuetako bat didaktikoa da, hau da, publikoari perkusio instrumentu bakoitzak musika estilo desberdinetan dituen erabilera erakustea. Horietarako, errepertorio aberatsa dauka: jazz, Afrika eta Brasilgo musika, flamenco, musika garaikidea eta, jakina, perkusioaren literaturaren barnean ezinbestekoa den musika. Interpretazio lan zorrotza egiten du. Haien kontzertuak munduko kulturetan zehar eginko ibilbideak dira, non erimua eta herri melodiak nagusi diren. Ibilbide horietan tresna primitiboetatik hasita (tamuzko minza duen danborra edo gorputza bera ere) amuntenetara doa (eratzak, bidioak eta sukaldako tresnak) eta horik perkusioaren modernizatera eta elektronikara iritsi arte. Hori guztia eszenaratze zaindusaz eta umore puntu batez lagunduta.

Grabazio historikoa!!

Nekazaritza eguna

1988
1989
1990
1992
1994
1996
2014

8 €

5 orduko bideoa + argazkiak
Lekunberrin egindako edizio guztiak

URTARRILAREN 19AN

JAUINSARASKO POLIKIROLDEGAN

ARRATSALDEKO 8TAN

HERRI TXIKI EMANALDIA

INFERNU HANDI

KORRIKAKO IBILBIDEA

ATEZ: ADMINISTRARI LAGUNTZAILE EUSKALDUNA.

ATEZKO UDALAK DATORREN URTERAKO LANGILEEN ZERRENDA ONARTU DU. ETA BERTAN AGERI DA ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA HARTZERAKOAN EUSKARA JAKITEA BEHAR-BEHARREZKOIA IZANEN DELA.

Bilgune Feministak 15 urte betetzen ditu. Zorionak!

EGUNERO IRRATSAIOA ASTELEHENETIK OSTIRALERA GOIZKO 10ETATIK 11ETARA ESAN ERRAN IRRATIAN

HAU HORRELA, EGINEN DEN LEHIAKETA-OPOSAKETAN ATERAKO DEN LANGILEA EUSKALDUNA IZANEN DA.

PAUSU BAT ANTZINA GURE HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIO BIDEAN. PAUSU TTIKI BAT BAINA AURRERA. IZAN DADILA BESTE BATZUEN AURREKARIA.

ORGI BASOIA JENDAUERREKO ORDUTEGIA

Urtarrila, otsaila eta martxoa
Igandetan goizeko 11:00etatik 14:00etara.
Informazio gehiago www.bosque-orgi.com

Ordutegi hauek informazio generako balio dute. Basoaren sarrera irekia dago beti.

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA 2016-17



Atea itxi dioten elizaren istorioa

Gorrontz-Olanon aspaldi ez dago mezarik, Herriko elizako atea itxi zuten, hilabete luzez Artzapezpikutzaren "azpijokoak" salatze.



la. Herrikoek haserre bizi izan dira eliza itxi zuten.

AZKEN NAHASMENA

"Mugimendu eta borondate eza" salatzen zuten biztanleek eta azkeneko asteetan saiakerak egon dira, baina momentuz ezer zehatzik gabe. Harrigarria bada ere, aldizkari honetako kazetaria izan zen gaia "mugimenduan" jarri zuena. Josetxo Vera Artzapezpikutzako Prentsa arduradunarekin hitz egin eta "arazoa Artzapezpikutzarekin bada ez dago inolako arazorik" deklaratu zuen, "data eta ordua jarri eta bilduko dira". Jose herritik deiak egiten hasi eta, pilota alde batera eta bestera. Ultzamako apaiz den Fco. Javier Aramendiak ez zuen gaian sartu nahi izan: "Ez dut deklaraziorik egingo Artzapezpikutzaren esku baitago kontua." Gorrontz-Olanoko Prentsa arduraduna deitu eta arazoa Ondareko erantzuleari pasa... Eta horrela daude idazten ari garen unean, ezin zehaztu bilera...

INMATRIKULAZIOAK

Ondare bat lehen aldiz paperetan jarri. Aznar presidente zen garaian hasi ziren eta kalkulatu da Nafarroan bakarrik 1.000 eraikin inguru izan direla. Ofizialki, Elizak honako hau dio: "Ez da batere araroa Elizak beste motako ondareak izatea. Parrokiek, talde erlijiosoen... edozein pertsona juridiko bezala, edozein motako dohaintzak jaso ditzakete".



PELLO APEZETXEA, ETXALARGO APAIZA:.

Zure iritziz, ze jokamolde izan beharko luke Elizak inmatriculazioen kontura?

Jendeen eta gauzen egoera ez da berdina toki guztietan. Horregatik historia kontuan eduki beharko litzateke. Erraterako, badira elizak familia batek eraikiak. Edo Apezpikutz edo elkarte erlijioso baten eraginez. Dena den, dudarik gabe, tenplu eta apez-etxe gehien-gehienak, herrietako jendeek jasotakoak dira, parrokiak deitzen dugun jende taldearen diru eta lanarekin. Herrietako parrokiako liburuetan begiratzea aski da.

Hori horrela bada, Apezpikutzak ez ditu sartzen ahal, bereak balira bezala, Jabetza Erregistroan; eta saldu ere, jakina. Badakit duela 80 urte erregistroan sartutako elizaren berri, baina ez Apezpikutzaren izenean, herriko parrokiaren izenean baizik. Eta orain dela urte gutti sartu ziren Jabetza Erregistroan, herri honetako parrokiaren izenean, tenplu nagusia, apez-etxea eta ermita, lehen Apezpikutzaren izenean zeude-

nak. Etxalartarrak ongi saiatuta, bai..

Nik uste jendeak saiatu behar duela gauzak egoki paratzen. Eta, nire iduriz, Udalen Plataforma deitutakoa, intentzio onez beharbada, baina ez da gauzak zuzenbidean eramateko laguntzen ari. Nik ezagutzen ditudan elizak eta parrokiak bertze eraikuntzak ez dira Udalen kontura eginak.



Olentzerok eta Errege Magoek, bere izenean jarri dituen ondasunak "itzultzeko" eskatu zitoten Iruñeko Artzapezpikutzari, egoitza atarira ikatza eramanda.



CARLOS ARMENDARIZ: NAFARROAKO ONDAREAREN DEFENTSARAKO PLATAFORMAKO PRESIDENTEA:

Elkarrizketa luze bat izan dugu apez ohi honekin, eta honako puntu hauetan laburtu dugu:

-Elkarte hau ez doa Fedearen aurka, elizaren barruan modu txarrean lanean ari den jende baten praktiken aurka baizik. Modu irmoan egiten dute haien lana, elizako jende horrek besteen fedea erabiltzen baitute inmatriculazioak egiteko.

-Inmatriculazioak ez dira bakarrik elizekin gertatu: Gorrontz-Olanoko kasuan bezala, apez-etxe asko "lapurtuak" izan dira. Ultzamako kasuan, zergatik saldu da halako prezio txikian? Herriek elizak eraiki, zaindu eta haien alde "izerdia" bota dute, eta horrela ordaintzen zaie?

-Ez da kasu isolatua: Esteribarren, Ilarratz herrian, hegoafrikar batzuei saldu zieten Erdi Aroko eliza eta beste zenbait sail inori esan gabe eta ziurrenik salneurri nahiko baxuan. Gaur egun epaiketetan daude errepide bat dela eta. Antzeko kasu bat gertatu zen 2009. urtean Mugiron, herriko apez-etxean 20 urte bizitzen zeraman familia bat kaleratu ostean. Gaur egun etxe hori hutsik dago oraindik.

-Hizkuntza lapurtu: Armendarizek ere aipatu nahi izan du Elizaren partetik egon den lapurreta kulturala: Lehen, eskualdean zeuden apaiz gehienak euskaldunak ziren eta horrela hitz egiten zieten fededunei. Gaur egun, modu kontzientean, jende erdalduna bidali dute.



Jendetza **Aritzun** Olentzerori gutunak emateko



eta askariari esker beroxeago sentitu ginen. Duela 7 urte sortu zen ohitura berri hau: Irantzu Eskudero, garai hartan Gizarte Etxeko langile zenak, Iruñeko elkarte desberdinekin hitz egin eta txangoa antolatuta zuten. Aritzuko herriak eta Yoar elkarteak antolatuta, urtero koadrila izugarria biltzen da. Iruñeko Yoar elkarte Arrosadia eta Azpilagañako auzoetan ume eta gaztetxoekin lan egiten dute, eta haien laguntzari esker bertako joaldunak eta txistulariak ekarri zituzten. Oberena kirol elkarreko haur pilo bat ere etorri ziren bi autobusetan eta Olentzerori agurra egin ondoren, euskal dantza erakustaldi bat egin zuten.

Batzuek dantzatzen zeuden bitartean, ilaran, besteak, haien gutuna Olentzero edo Maridomingu emateko esperoan zeuden. Lotsati eta mesfidantzaz gehienak, papera eta musua eman zioten menditik jaitsitako ikazkinari. Txokolatea, dantzak eta gutunak bukatu zirenean, denak etxera, hotza eta iluntasuna nagusi baitziren arratsaldeko ordu horietarako.

Mendira itzuli aurretik, Olentzerorekin minutu-txo bat egoteko aukera izan genuen eta jada gutunak irakurtzen hasia zen, noski, urte osoa itxoi-ten eraman ondoren normala da presaka ibiltzea. Bizpahiru gutun irakurri zizkigun eta pozik konprobatu genuen oraindik umeak "super ongi" portatzen direla etxean, nahiz eta baten batek, nola edo hala onartu, "asi-asi" pasatu izana urtea.

Gauza bera espero dugu zuendako ere, irakurle maiteok, baliteke urtea "hola-hola" edota "super ongi" pasatu izana, baina behintzat, pasatu, pasatu dugu. Urte berri on!

Urtero-urtero ospatzen ditugu eguberriak, diotenez behintzat, duela 2.000 urte inguru. Guk dakigula, egunkari eta aldizkariak ez dira hain zaharrak, baina urtero zerbait idatzi behar, nola ez. Kontua da urtero antzeko gauzak egiten direla, eta nolabait interesa mantendu beharko, Olentzerok guri ere zerbait ekartzea nahi badugu behinik behin...

Aurten, zorionez, txiripaz entzun genuen Aritzura jendetza hurbiltzen zela Olentzerori gutunak ematera, eta nola ez, gu ere hurbildu ginen. Hilabete honetako aldizkariaren azala, Maridomingu eta Olentzero menditik jaisten zirenean Aritzuko sarreran hartutakoa da.

Anueko herri polit horretara igo ginen 250 pertsona inguru ikazkina eta bere laguntzaileari urteko lehenengo agurra ematera. Abenduaren 18an izan zen eta, giroa hotz bazegoen ere, txokolatea

Lizasoko eguberritako golf **txapelketa** izan zen



Dozena bat edizio egin dituzte jada. Lizasoko Pitch and Putt golfekoek urtero txapelketa txiki bat antolatzen dute eta aurten ere hala izan da.

Aurtengo irabazleak Leire Asqui eta Aitor Estomba izan dira. Leirek 59 kolpe eta Aitorrek 53 behar izan dituzte opari saskia eramateko. Argazkian ikus daitekeen bezala, partaide ugari eta anitzak egon ziren, eta gizonen kategorian Estombaren atzean Gorka Martinez eta Xabier Gerendian geratu ziren. Emakumeen kategorian, aldiz, Ashquiren atzetik Begoña Jimenez eta Mari Paz Alvarez geratu ziren.

Lagunartean jokatu zen txapelketa hau *Iraona Distribuciones* enpresak laguntzen du, eta, eguberri saskiak oparitzeaz gain, partaideen artean ardo eta likore botilak zozketatu ziren. Antolakuntzatik "esker-rrak" eman nahi dizkiete hurbildutako partaide eta lagun guztiei.

Mugen gainteko **maitasuna**



Buruan mila zalantza eta sabelean uda aldeko korapiloak nituela erabaki nuen gabon garaian Greziara itzuliko nintzela. Lehen akanpalekua zapaldu nuen unetik hainbeste milaka pertsonak sufri duten egoera tamalgarria soinean daramat iltzatuta, barne barnean. Munduaren eta bertako sistemaren ikuspegia aldatu zitzaidan eta ordutik ezin lasai bizi. Ulertezintasuna, haserrea, frustrazioa. Ezjakintasuna, sufrimendua. Nahi eta ezina. Begirada galduak, malkoak. Amets lapurtuak, bitzita zarratuak.

Hilabete oso bat telefonorik gabe

Aspaldi dakigu enpresa handiei herri txikietako merkatuak ez zaizkiela interesatzen. Oso nabarmena izaten da, adibidez, argindar arazoak daudenean. Azaroaren 30etik aurrera Basaburuko "goiko" herriak telefono estaldurarik gabe egon dira: Igoa, Arrarats, Beruete eta Aizarotzen ezin da telefono mugikorra erabili eta Gartzaronen deiak egin ahal dira, baina ezin internetera konektatu telefono bidez.



Arazoaren muina enpresa handien interes eza bada ere, gurean beste modu batez zehaztu da: Esan Erran irriaren antena Beruete mendian dagoen etxola batean dago. Etxola horretara konektatu ziren bere garaian Movistar eta ETB ere, haien zerbitzua emateko.

Urteak joan urteak etorri, telefonoen erabilpena igotzen doa eta zerbitzu berriak eskaintzeko (3G teknologia deit-

Negua iritsi da. Hotza eta isolamendua. Bakardadea. Azken asteetan pertsona asko pisu edota hoteletara mugitu badituzte ere, orain arte sorturiko komunitate eta elkartasun taldeak oinarritik zatikatu dituzte. Familiak elkarrengandik urrundu dituzte eta ez dute pisuetatik ateratzeko aukera handirik, berriz ere erdigunetik urrun dauden esparruetara mugatu baitituzte. Azken egunetan tenperaturak oso baxuak dira eta urik nahiz elektrizitate-terik gabe geratu ohi dira tarteka. XXI. mendea. Gezurra dirudi. Egoeran pentsatzeak erotzera garamatza, daramatza. Aurretik sumatu gabeko seinaleak ageri dira, batez ere gazteen artean. Denborak eta bizitzak aurrera jarraitzen du, geldialdirik gabe. Haiek bertan, erantzunik gabe. Euren bizitzen iparra galdurik.

Emozio nahasiak etengabe. Berriz ere elkartzeko eta besarkaden alde garrantz eta gozoa. Taldekide eta gertukoekin babes eta ulerkortasuna. Uneen intentsitatea. Maitasuna. Batez ere, maitasuna. Ziur naiz azken hau dugula mundutxo gaixo hau sendatzeko tresna nagusia. Mugara garamatzaten egoerek ere gure baitan dagoen hoberena ateratzeko boterea dutenaz ziur naiz. Garbi sentitu dut berriz ere, hala helarazi didate. Elkarren arteko maitasun eta elkartasunak ez du mugarik izango.

Besarkada sakonena eta nire mirespen osoa bertan diharduten eta maite-maite ditudan lore eder guzti horiei.
AMAIUR MARTINEZ

zen dena) argindar kontsumo handiagoa behar da. Kontua da kontratatutakoa baino kontsumo gehiago zegoenez, argindarrak "salto" egin zuten eta hori ez gertatzeko telefono enpresak potentzia jaitsi zuten, horregatik estaldura arazoak. Harrigarria eta "haserregarria" dena da, hainbeste denbora egotea

arazo hau ezin konpondu. Orokorrean, hitz egin dugu jende guztiarekin (Ametza, udala, bezeroak, enpresak...) eta hemengo jendearendako egoera larria bada ere, enpresa handiei ez zaie gehiegi inporta kontua. Lanean ari dira arazoa konpontzeko, eta baliteke aldizkari hau jasotzen duzunean arazoa konpondua egotea, baina Movistarreko langile batek esaten zigun: "194 bezeroen arazoa da", oso gutxi haiendako, gehiegi guretzako.

Tokiko Maparen **erreforma** aurrera doa

Urteak, hamarkadak dira kontu hau bueltaka-bueltaka dugula gurean eta baita Nafarroa osoan ere. Kontzeju, herri txiki eta Mankomunitateen estatusak eta konpetentziak erabakiko dituen legearen debatea "oso konplexua" bada ere, badirudi behingoz zehaztuko dela. 2016 urte bukaeran eta 2017 urtean itxi nahi den gaia da hau eta orain jakin izan denez, "Nafarroako Udal eta Kontzeju Konfederazioak martxan jarriko duen parte hartze prozesuaren bigarren fasea" irekitzear dago.



Burlatan egindako bileraren irudia. U.B/D.N

UPNren garaietan gaia mahai gainean jarri bazen ere, bere garaian kritikatu zen proiektuaren aldebakarrekotasuna. Orain, aldiz, proiektua irekiagoa izaten ari da, bertan inplikaturakoei esaten digutenaren arabera.

EH Bilduk bidalitako prentsa oharrean adierazi dute "tokian tokiko entitateei dagokien ordenazio egokiago bat behar dela, egun dagoen atomizazioari irtenbideak eskainiz eta entitate hauen borondatea eta iritzia kontutan hartuz herritarrei eskaini beharreko

zerbitzuak hobekiago arautuz". Horren harian, koalizio abertzaleak entitateen autonomia beharra nabarmendu du, "bakoitzaren eskumenak zeintzuk diren zehaztuz eta argituz, eta eskumen horiek garatzeko finantzazio nahikoa bermatuz.

Toki entitateek urte luzez nozitu duten finantzazio sistema klientelarekin apurtzeko neurriak bermatu behar dira, toki entitateek beraiei dagozkien zerbitzu publikoak modu egokian eskaintzeko baliabideak ziurtatuz". EH Bilduren ustez, "oso inportantea da mapa lokalaren inguruko prozesu parte hartzaile hau ongi egitea".

Ultzamako Puri Etxeberria zinegotziarekin hitz egin dugu eta komentatu digu "orain hausnarketa fasean gaude eta urtarrilaren 11an bilkura publikoa egingo dugu Burlatan lehenengo fase honi buruz hitz egiteko".

Basaburuko Xabi Azpirotz zinegotziak prozesu "interesgarria" dela esan digu eta oraindik zirriborroa bada ere, kontzejuen konpetentziak "mantendu" ahalko direla dirudi. Azpirotzek aipatu digu 2017 urte honetan legea aurrera aterako dela, horregatik informatzen jarraituko dugu mugimenduak egon ahala. Portzierto, gure zonaldeari "Bailarak" deitu nahi diote...

Danonek **abeltzainak** alde batera uzten ari dela salatu dute

Azkenak Baztango eta Larraungo zazpi esplorazio izan badira ere, gurean ere halakoak gertatu dira aurretik. EHNE sindikatuak argitara eman du bailara horietako hainbat abeltzainen esnea jasotzeari uko egingo diola Danone enpresak: "Esne kuoten ekoizpen eredu bertan behera geratu zenetik, nahi moduan maneiatzen dituzte industriek abeltzainak.

Esnea ekoizten duten baserritar hauek, esnea bilduko dien enpresarik gabe geratuko dira. Hiru hamarkadaz hutsik egin gabe Danone enpresari esnea entregatzen jardun ostean, enpresa horrek apiriletik aurrera haien esnea ez duela bilduko adierazi die".

Multinazional horrek azkenaldian duen jokatze modua antzekoa da: 6 hilabeteko epea ematen die interesatzen ez zaien ekoizleei eta jasotzeari uzten diote. Gure eskualdean, guk dakigula, Eltzaburun eta Orokietan utzi zioten hartzeari.

Oraingoan 14.000 litro esne (bi egunetik behin) ekoizten dituzten zazpi abeltzain dira egoera honetan daudenak.

Nekazari sindikatuaren hitzetan iazko apirilean esne kuoten sistema bertan behera geratu zenetik, abeltzainek bizi duten "ahulezia" areagotu da: "Azken erabaki honen ondorioz, hiru ekoizleek esnea ekoizteari utzi diote. Hala, azken urteotan esne ekoizpena zuzendutako 100 baserritik gora galdu dira Nafarroan: 2005ean 269 baserri zeuden, 2016an 160 geratzen dira".

Egoera honen aurrean, eta baserri txiki zein ertainek beraien lanarekin aurrera jarraitzeko aukera izan dezaten, gainontzeko esne industriei "bertan ekoizten den esnearen aldeko apustua" egin dezatela eskatu dio EHNEk, modu honetara, beraien publizitate kanpainetan hainbestetan erabiltzen duten bertako esnearen "alde eginez".

Urteko azken **pilotakadak**

Gurean badaude kirolak eta kirolak. Argi dago hemen, usadio kontua izan ala ez, Herri Kirolak, errugbia, eta, nola ez, pilotak, beste kirolek baino arrakasta handiagoa dutela. Frontoian jokatzen diren kirolen arrakasta deigarria da: herrietako frontoietan edozein arratsaldetan jolasten denaz gain, badago gurean zenbait txapelketa interesgarri. Azpi-marragarriena, Gartzarongo pilota txapelketa.



Datuak deigarriak dira: 2016. urtekoa 32. edizioa izan dugu eta uztailetik hasita azaro arte aritu ziren jokatzen. Guztira 210 bikotek 185 partidua jokatzen zituzten.

Finalen egunean frontoia leporaino beteta egon zen, eta, Toki Alai elkarteok esan zigutenez, "oso giro politoan, leporaino zegoen beteta nahiz eta eguraldi kaskarra izan".

Aurtengo edizioa helduen finalean eskualdeko 4 pilotari izan genituen. Astiz eta Mendilabarrek 22 eta 15 irabazi zieten Iriarte eta Gaskueri. Zepelo antolatzaileak partida laburtu zigun: "Pena izan da alde aurretik Iriartek min hartua egotea. Nahiz eta Gaskue gogotsu aritu den ezin izan die aurre egin Astiz eta Landiribarri. Hoberena Gaskue gaztea (17 urte)". Sari banaketan Laso eta Martija pilotari profesionalak egon ziren.

Gosua txapelketa Imotz eta Basaburuko ki-

rol batzordeek ere urtero antolatzen dute txapelketa "xumeago" bat, Gosuarena. Aurten ere urteko azken asteetan jokatu da eta finalak Latasa eta Gartzarongo pilotalekuek izan ziren.

Txapelketa honen helburua irabaztea ez bada ere, finalean datuak pasa dizkigute. Hona hemen emaitzak: hirugarren maila, Mikel eta Juanillo 19, Mikel eta Josu 22; bigarren maila, Gelbentzu anaiak 16, Arribillaga eta Roldan 22; eta, lehen maila, Mendinueta eta Mazarriaran 18, Barbajero eta Legarra 22.

Internet **arazoak** konpontzeko bidean?



Fibra jartzen Ostiz aldean. A.H

2021ean Nafarroako herri guztiek zuntz optikoa izan dutela adierazi zuen Nafarroako Gobernuak, horretarako plan bat aurkeztuta. Nafarroako mendialdean internetekin ditugun arazoak konpontzeko lituzke horrek.

Zuntz optikoa gurera iristeko lanak hasi dituzte jada N-121A errepidean (Iruñea-Behobia errepidea). Azkenaldian bertatik igaro bazarete, ikusiko zenuten errepide bazterrean zuloak egin eta kable bat sartzen ari direla, hori da zuntz optikoa. Ezka-

bako tuneletatik Ostiz arte egin dute jada, eta hurrengo pausoa Arraizko bentak arte iristea izanen da. Izan ere Belateko tuneletako zatian bada-go zuntz optikoa.

Hortik aurrera, Arraizko bentetatik Elordi poligonora eta Larraintzarra iristea izanen da helburua, poligonok eta bailara hiriburuak lehentasun baitira Nafarroako Gobernuarendako. 2017an egingen dutela espero daiteke. Eta Larraintzartik gainontzeko herrietara iristeko obra gehiago egin beharko dira. Biaukeruaren dago, errepidean zehar edo uhin bidez iristera herrietara.

Dena den, nahiz eta Gobernuak 32 milioi euroko aurrekontua jarri, udal eta kontzejuak "lagundu" beharko dutela esan du.

Aspaldiko aldarrikapena

Landa eremuetan aspalditik dagoen eskaera da internet zerbitzu duina

izatea. Gurean, Aizarozko biztanleak hasi ziren mugitzen, eta Basaburuko Udalarekin zein Nafarroako Gobernuarekin harremanetan egon dira irtenbide bila. Nafarroako Parlamentuan ere egon ziren egoera azaldu nahian, eta Nafarroako beste hainbat herritan ere eskaera bera egin zioten Gobernuari.

Ez dira gutxi Telefónica enpresarekin ditugun arazoak, internet dela edo telefonoko estaldura arazoak direla. Horregatik Nafarroako Gobernuak adierazi du ez diela Telefónica bezalako enpresei eskumenik emango zuntz optiko sare berria daukagun. Izan ere, honen inguruko informazio ugari eman digun Gorka Etxeberria aizaroztarraren esanetan, "enpresa pribatu hauek ez dute gurean interesik izan. Eta, beraz, ez dezatela orain haien intereserako baliatu Nafarroako Gobernuak udalen laguntzarekin, diru publikoa erabiliz ematen ari diren zerbitzua".

Azken ekimen feministak

Gure egutegian zenbait data markatuago baditugu ere, berdintasuna urte osoan landu beharreko kontua dela uste dugu. Basaburuan aspaldi mugimendu anitza dago feminismoaren inguruan eta hileroko antolatzen dira gauza interesgarriak. Esan Erran irratiari gonbidatu izan genuen Lorea Agirre kazetari eta antropologoa eta bailarako Kultur Etxean eskaini zuen "Euskara eta feminismoa" hitzaldiari buruz kontatu zigun. Horretaz gain ere, Udalak beste tailer interesgarriak antolatu ditu azkenaldian.



Nola hasi zineten kontzeptu honekin?

Egia esan, ez zen gugandik sortu. Arrasateko emakume eta euskara taldeak mahai-inguruak elkarrekin antolatzen zituzten eta halako batean galdera bat mahai gainean jarri zuten: izan al zaitezke feminista euskaltzale izan gabe? Galdera harrigarria izan zen momentu horretan. Ideia horri astinaldi bat eman behar geniola pentsatu genuen eta hortik sortu ziren hitzaldi hauek. Gure diskurtsoaren erroa da feminismoa eta hizkuntza-normalkuntza ahizpak bezala dira, aliatuta egon behar dute.

Azalduko diguzu hau?

Bai, euskaldun izatea gizarte honetan arazoak sort-

zen dizkizu eta emakume bezala gizarteak atak itxi dituzu... hau argi dago. Bi oztopo edo ezintasun horiek, normalizatu gabeko bi bide horiek gudan nola bizitzen ditugun ikusi behar dugu. Harrigarria egin zitzaigun bere garaian ikustea zenbat kostatu zaigun konturatzea lotuta daudela; ez direla bi artxibo, bi kutxa desberdin. Hortik abiatuta gure buruari galdetzen diogu, zein momentutan konturatzen gara euskaldun garelara eta noiz konturatzen gara emakume garelara?

Eta lotuta egonda, noizbait ere batera doaz, noski. Loreak bota zuen galdera airera: eta inoiz bi euskaldun emakume izatetik, hiztun gutxitua zara? Adituek egindako ikerketek baietza ematen diote galdera horri... Agirrek, bukatzeko, bota zigun: "Biak lotuta daudenez, biak lotuta aterako dira zuloetik".

Hitzaldi interesgarri horretaz gain, Basaburuko udalak azkeneko asteetan ere autodefentsa tailer bat antolatu zuen. Emagin taldeko Rebeka Maestrok eskaini zuen ikastaro hau bi data desberdinetan eta "pozik" geratu zirela esan digute, jende gazte asko hurbildu baitzen eta parte hartzea egon zela esan digute udaletxean.

Energia lortzeko bide berriak



Goienener Goierriko kooperatibako kideak Basaburuan izan ziren joan zen hilean. Fakturak askotan altuegiak direla, edo ez ditugula ongi ulertzen, holako gaiak azaltzeko asmoarekin hitzaldia eman zuten.

Gustura egon zirela esan ziguten, helburua jendeari informazioa ematea baitzen, tresna edo baliabide zenbait ematea iruzurrak saihesteko. Askotan ez dakigu zer tarifa dugun, ordaintzen duguna gehiegi edo gutxiegi den...

Etxera iristen zaigun energia berdea ez dela ere azaldu zuten, beste era batera esateko, ez dela berriztagarria ezta ingurugiroarekin errespetua duena. Goiene-

rek energia eramaten du etxeetara. Beste era batera egiten omen du. Jatorri berriztagarria duen energia soilik erosten du, eta hori bere bazkideei saldu. Gai-nontzeko enpresa handiek jatorria begiratu gabe erosten dute energia.

Irabazi asmorik gabe merkaturatzen du energia, eta merkatu elektrikoarekin kritikoa da. Ekoizpen gune txiki eta deszentralizatuen alde egiten dute, tokiko baliabide energetikoak probestuz (enpresa handiek egiten dutenaren aurka), eta energia ekoizten den lekutik ahalik eta gertuenen kontsumituz. Gaur egun ezinezkoa da hori egitea, baina egokiena hori egitea litzatekeela diote.

5.200 bazkide ditu Goienerekin orain, eta hileroko 120 kontratu berri egiten ditu. Diotenez, publikitatean ez dute xahutzen, eta jendea da haiengana joaten dena, energiaren gaien inguruan hitzaldiak ematen baitituzte.

Silbestre deun lasterketa "politena"!



Inoiz baino politagoa izan da aurtengo Silbestre deun lasterketa. Abenduaren 31n izan zen, gauzez Lizason, eta Asier Uriarte kirol teknikariak aipatu digu bere ustez edizioarik politena izan dela. Herri erdian izan zen hasiera eta bukaera, eta edertasun berezia eman zion horrek. 24. edizioa zen, 2017an zilarrezko ezteiak izan zituzten Ultzamako lasterketak.

Txikitxoekin hasita, parte-hartze handia izan zen, 6-7 urteko 35 haur aritu ziren korrika Lizason barna. Aimar Etxeberria izan zen azkarrena, Alain Ileskas eta Markel Iribarrenen aurretik. Neskak eta mutilak elkarrekin aritu ziren korrika. (Nik hemen lehenengo nesken izenak ere aipatuko nituzke) 8-9 urte artekoak hasi ziren gero. Ibilbide luzexeagoa zuten, eta 22k hartu zuten parte. Iker Martikorenak igaro zuen helmuga lehenengo, Unai Mindegia eta Josu Orkinen aurretik.

10-11 urte bitartean 32 parte-hartzaile izan ziren. Irabazlea Beñat Astrain izan zen, bigarren Andoni Sarasibar eta Unai Kaiet hirugarren.

12-15 urte bitartekoetan Itsaso Gerra irabazle, Hodei Urriza bigarren eta Ainhoa Astrain hirugarren. Ikus dai-tekeenez, azken honetan bi neska ditugu podiumean. Aipatu beharra dago proba guztietan genero aldetik parte-

hartzea oso parekoa izan zela, eta bereziki kadete maila honetan, oso pareko ibiltzen direla neskak eta mutilak, kasu honetan maila handiagoa erakutsi zuten neskek.

4 kilometroko distantziak arrakasta handia izan zuten. 12-15 urteko batzuek ere parte hartu zuten lasterketa honetan, eta Asier Uriarteren ustez erabaki ona izan zen 4 km-ko lasterketa egitea. Hirugarren urtea da distantzia hau egiten dutela, eta aurten 68 korrikalari izan ziren, ia-zko bikoitza.

Mutiletan irabazlea Mikel Gerra izan zen, bigarren Nestor Domeño eta hirugarren Jon Zabala. Eskualdeko lehena Aritz Olague izan zen (osotara bosgarren). Mikel Gerrak (iazko 8km-ko lasterketaren irabazlea) zioen ez zegoela ongi prestatua 8km-koa egiteko, baina ikusi genuen prestateta ona zuela. Emakumezkoan, 12-15 urteko lasterketa irabazi zuen Itsaso Gerrak hartu zuen parte ere, eta irabazi gainera. Aita-alabak irabazle lasterketa honetan. Bigarren Eltsoko Ana Iraizotz eta hirugarren Ainhoa Gaskue.

8 kilometrokoan, azkenik, 88 korrikalari izan ziren. Emakumeen artean Lucia Oskotz izan zen azkarrena, Amaia Etxeberria bigarren, eta Luciaren lehenengoa Saioa hirugarren. Mutiletan Dani Iparragirre irabazle, Imanol Lukanbio bigarren eta Iñigo Iribarren 17 urteko Suarbeo gaztea hirugarren.

Euskal Herriko Mus Txapelketa



Igoako kanporaketa
Lekua: Herriko ostatuan
Ordua: 18:00etan, urtarrilak 14

Jauntsarasko kanporaketa
Lekua: Apeztegi berriko dendan
Ordua: 16:00etan, Urtarrilak 21

Gartzarongo kanporaketa
Lekua: Toki Alai elkarteak
Ordua: 17:00etan, urtarrilak 28

Ederbidea, berriz ere turismoari begira?

Euroveló bizikleta sarea, Norvegiatik Portugalera bidea egiten duena, eskualdetik ere pasako da. Europako bizikleta turismorako tresna garrantzitsua da, milaka txirrindulari igarotzen baitira urtero. Honen aitzakiarekin, eta azkenaldian turismoaz asko hitz egiten ari garela ikusirik, eskualdeko alkateekin eztabaida bat sortu nahi izan dugu: turismoari garrantzi gehiegi ematen al diogu?

EUROVELÓ ESKUALDEAN: EDERBIDEA



Ederbidea Bidasoako eta Plazaolako bide berdeak lotzen dituen bidea izanen da, Doneztebetik Imozko Latasara. Eskualdean Basaburua eta Imotz bailarak hartuko ditu. Basaburuko eta Imozko Udalek, elkarrekin, bide proposamen bat egin zuten: Orokietatik sartu, eta Basaburuko herri anitz igaroko lituzke: Erbiti, Gartzaron, Jauntsarats, Itsaso, Beramendi eta Udabe, gero Imozko Latasara iritsi arte. Hala ere, Madrilgo Paymacotas enpresak eta Nafarroako Gobernuo teknikariek beste bi bide proposatu zituzten, ondoko mapetan ikusgai dituzuenak:

Orokietatik - Jauntsarats



Bidea erabakitzeke orduan, prozesu parte-hartzaile bat izan zen, non Basaburuko eta Imozko Udalen proiektua hobetsi zen, baina irizpide ekonomikoengatik bereziki, Nafarroako Gobernuo teknikariek proposatutako bidea izanen da azkenik eginen dena. Beraz, Itsaso, Beramendi eta Udabe zeharkatu beharrean, Ihabendik Etxalekura, hortik Erasora eta azkenik Latasara egiten du bideak, bertako errepedetik.

Basaburuko Udala ez dago ados hartutako erabakiarekin, hemen dituzue Esther Lakasta Basaburuko alkateak esandakoak: "Onartutako bideak ez ditu gure helburuak betetzen".

"Prozesu parte-hartzailean, boto gehien atera zituen proiektua gurea izan zen, baina bestelako irizpide tekniko eta ekonomikoak hartu dira kontuan".

"Gure helburua, bereziki Basaburuko herrien ar-

teko mugikortasuna hobetzea zen, aspalditik presente dugun proiektua, herriak bizikletaz lotzeko. Beraz, erabakiak ez du helburu hori betetzen, turismoari dagokion etekina lortzen dugu soilik"

Eman dezake Imotz dela erabaki honen onuraduna, baina Josean Iturralde alkateak ez du erabat honela ikusten: "Basaburuarekin batera lan egin genuen guk, gure helburua Latasako geltokiaren proiektua indartzea zen, eta bide batek zein besteak bertan zuten helmuga".

"Erabakiak Imozko mugikortasunari dagokionean ere ez dakar onura handiegirik; Etxaleku, Eraso eta Latasa baino ez ditu lotzen".

"Erabaki nagusia ekonomikoa izan da. Egia da Imozko errepedetik auto gutxiago igarotzen direla Basaburukotik baino (200 inguru egunean Imoztik, 1000 inguru Basaburutik), baina ikusten zen Gobernuo teknikariek aurrekontua murriztu nahi zutela".

Jauntsarats - Latasa



Gauzak horrela, afera garrantzitsu bat utzi du agerian honek guztiak: turismoari edo kanpoko bisitariari begira onurak dakartza proiektuak, baina lehenengo helburua herrien mugikortasuna eta bailaren garapena zen.

TURISMOARI INDAR GEHIEGI?

Gurean oso presente dagoen eztabaida da turismoarena, indar politikoen arteko ezberdintasunak ere markatzen dituena askotan. Hori dela eta, gure eskualdeko hainbat alkateri turismoaren inguruan zein ikuspegi duten galdetu nahi zian diegu:

ISABEL BALEZTENA, LANZKO ALKATEA

"Lantz, eskualdeko herri gehienak bezala, txikia da, baina nortasun handikoa. Aberastasun kultural eta naturalari esker bisitari ugari izan ditugu beti, eta besoak zabalik jaso izan ditugu. Azkenaldian hotel bat eta landetxe bat ireki dira (hiru daude



Lanzko Gartxenia hotela irudian

jada), eta Santiago bidearen aldeko apustua egin dugu".

"Turismoa oraindik garatzen ari garen sektorea da, eta asmatu behar dugu hori garatuz herriaren esentzia ere mantentzen ahal dugun aldi berean. Interesgarria da turismoa eta nekazal-abeltzain sektoreek sinbiosian garatzea, ez dira kontraesankorrak, eta herriaren etorkizunari eta garapenari laguntzen diote".

"Egia da arazoak izan ditugula bisitari kopuru handiegia, eta neurri batzuk hartu behar izan ditugula, baina ez dago aparteko arazorik"



Arostegiko kanpinaren maketa

EZEKIEL MARTIN, ATEZKO ALKATEA

"Kontuan hartuta lehen sektorea gure ekonomia-aren zutabea dela, aktibitate produktibo berriak sortzea ezinbestekoa da ekonomia tradizionaletik landa ekonomia jasangarrira pasatzeko"

"Lehen sektorea ez da sekula baztertzaila izan, aktibitate osagarriak izan ditu beti; beraz, turismoa ez da berritzailea. Turismoak bailararen garapenean laguntzen du, eta argi dugu lehen sektorea turismoaren zutabeetako bat dela, beraz maitasunez zaindu beharrekoa da"

"Bi sektoreetan garapen aukerak ikertu behar dira, bereziki ekoizle-kontsumitzaile lotura zuzena bermatzeko"



Latasako geltokia

JOSEAN ITURRALDE, IMOZKO ALKATEA


"Turismoaz hitz egitea aitzakia bat da bailararen garapenaz hitz egiteko, gure aktibitateak mantendu eta garatzeko. Aktibitateak sortzea da helburua"

"Azkenaldian ekoizle eta kontsumitzaileen arteko hartu-eman zuzena galdu da, eta turismoak esan nahi du hemen ekoizten dena ezagutzera ematea, guk kontsumitzen dugun gehiena erekanpokoak baita. Hartu-eman zuzen hori berreskuratzea ezinbestekoa da"



ESTHER LAKASTA, BASABURUKO ALKATEA

"Ederbidean, turismoari baino, bailararen garapenari begiratzen genion. Turismoak onurak dakartza herrietako aktibitateetarako, baina herrien arteko mugikortasuna izan da gure helburu nagusia"





ZOKKETA MUNDIALA 2016

124 SARIEN ZERRENDA

Zbak	Produktua	Nori egokitu zaion	Nongoa
7427	Gazta	Julen Yurramendi	Aizarotz
7473	28 zenbakia dun Saskittoa	Errota	Aizarotz
20032	Axuri eder bat	Presen Iraola	Alkotz
20108	Zerri berezia-Mendian hazia	Bernardo Etxeberria	Alkotz
16820	Gazta	Rosa Alzuarte	Almandoz
18231	Ongi etorri, zurean zizelkatua	Rosa Alzuarte	Almandoz
18358	Gazta	Maria Jesus Goienetxe	Amaur
18324	Sari berezia-Makil artistikoa	Maritxu Larretxea	Arantza
4451	Ileapaindegiko bonoa	Iñaki Agirre	Arizkun
14189	Erosketa bonoa (10€)	Kontxi Mariezkurrena	Arrarats
11122	Axuri eder bat	Moises Azpiroz	Arrarats
11165	Zerri gizona	Asensio Azpiroz	Arrarats
2307	Landa ebeko bonoa (70€)	Ramon Otxoa	Arre
12479	Zerri gizona	Ana Aranburu	Asteasu
8499	Tarta	Belen Rueda	Atarrabia
8690	Erosketa bonoa (20€)	Jokin Santxo	Atarrabia
12426	Gazta	Joseba Barandiaran	Ataun
5148	Gazta	Antonio Ilarregi	Auza
8203	Ileapaindegiko bonoa	Jose Migel Larrainzar	Auza
8344	Erosketa bonoa (10€)	Izaskun Anduaga	Auza
7853	Zerri gizona	Jaime Larralde	Baztan
9382	30 zenbakia dun Saskittoa	Beñat Dorai	Beramendi
9275	Gazta	Karmentxu Otxotorena	Beruete
15340	Bazkaria 2 pertsonendako	Arhane Etxenike	Burutain
15403	Gazta	Aitor Aleman	Egozkue
15430	Esneki sorta	Xabi Aleman Arrate	Elizondo
12180	27 zenbakia dun Saskittoa	Rosa Pikabea	Eltso
12287	Axuri eder bat	Ainhoa Iturralde	Eltso
8022	Gazta	Anton Etxeberria	Eltzaburu
8098	Gazta	Mentte Larraioz	Eltzaburu
8105	Ileapaindegiko bonoa	Ana Alberro	Eltzaburu



ZOKKETA MUNDIALA 2016

124 SARIEN ZERRENDA

Zbak	Produktua	Nori egokitu zaion	Nongoa
12622	Bazkaria 2 pertsonendako	Jose Migel Galain	Iraizotz
18266	Gazta	Josebe Etxeberria	Iraizotz
18399	Gazta	Josu Larretxea	Iraizotz
2855	13 zenbakia dun Saskittoa	Maite Rekalde	Iratxeta
1927	Bazkaria 2 pertsonendako	Alizia Perez	Iruña
2648	Bazkaria 2 pertsonendako	Beñat Aleman	Iruña
2818	Gazta	Juanja Iturralde	Iruña
3169	2 Ontto zurezkoak	Itziar Borda	Iruña
4623	21 zenbakia dun Saskittoa	Naiara Lopez	Iruña
4641	Gazta	Maite Rey	Iruña
5377	Gazta	Fermina Iturri	Iruña
5379	17 zenbakia dun Saskittoa	Fermina Iturri	Iruña
5540	Esneki sorta	Loli Rekarte	Iruña
11461	Kosmetika lotea	Maria Eugenia	Iruña
11479	25 zenbakia dun Saskittoa	Jaione Arana	Iruña
12169	Kosmetika lotea	Patxi Elizalde	Iruña
12998	Kosmetika lotea	Mikel Merlo Arana	Iruña
13676	12 zenbakia dun Saskittoa	Patxi Larrion	Iruña
13702	Axuri eder bat	Iratxe Legarra	Iruña
13762	Gazta	Enrike Diez de Ultzurrun	Iruña
13812	Gazta	onserrat Contin	Iruña
13848	5 zenbakia dun Saskittoa	Lourdes Bicuña	Iruña
14654	Erosketa bonoa (20€)	Patxi Papel	Iruña
15690	6 zenbakia dun Saskittoa	Pili Mariñelarena	Iruña
7158	2 zenbakia dun Saskittoa	Kattalin Etxegia	Iruña
9224	10 zenbakia dun Saskittoa	Marisa Zabala	Iruña
11413	Zerri gizona	Irure Harategia	Iruña
17201	Landa ebeko bonoa (70€)	Alaitz Oroz	Iruña
17250	19 zenbakia dun Saskittoa	Maite Mikeo	Iruña
22106	9 zenbakia dun Saskittoa	Endika Arrondo	Iruña
3407	Esneki sorta	Goretti Iriarte	Iruztzun

Zbaki	Produktua	Nori egokitu zaion	Nongoa
7337	18 zenbakia dun Saskittoa	Jesus Fdez de Muniain	Eraso
16350	Zerri gizona	Imanol Iragi	Erripa
18187	23 zenbakia dun Saskittoa	Imanol Iragi	Erripa
2292	Bazkaria 2 pertsonendako	Ignacio Perez	Etsain
2985	Gazta	Adur Aleman	Etxaleku
4679	20 zenbakia dun Saskittoa	Ascension Astitz	Etxaleku
11604	14 zenbakia dun Saskittoa	Beatriz Aleman	Etxaleku
21834	Sari berezia-Zurezko-abstrakzioa	Sagrario Aleman	Etxaleku
22406	3 zenbakia dun Saskittoa	Maxibel Igeltz	Etxaleku
5024	Sukalde zurezko tresna	Juanito Arretxea	Gartzain
16077	Bazkaria 2 pertsonendako	Anuntxi Sarasibar	Gartzaron
5591	1 zenbakia dun Saskittoa	Txaro Alkasena	Gartziriain
5592	22 zenbakia dun Saskittoa	Txaro Alkasena	Gartziriain
5596	Axuri eder bat	Jesus Alkasena	Garzirriain
8725	Bazkaria 2 pertsonendako	Mari Karmen Mariñelarena	Gaskue
8759	Bazkaria 2 pertsonendako	Fermin Urdianitz	Gaskue
4257	Zerri gizona	Naiara Subies Nuin	Gelbentzu
4280	Zerri gizona	Rakel Arraztoa	Gelbentzu
5739	15 zenbakia dun Saskittoa	Jose Igancio Irure	Gelbentzu
19838	16 zenbakia dun Saskittoa	Maribel Agirre	Gerendiain
17551	29 zenbakia dun Saskittoa	Mertxe Nuin	Goizueta
21610	11 zenbakia dun Saskittoa	Maixe Aizpuru	Goizueta
11820	Zerri gizona	Etxeberri Ostatur	Goldaratz
9256	7 zenbakia dun Saskittoa	Rosario Beuntza	Igoa
11517	Bazkaria 2 pertsonendako	Maialen Huarte	Ihabar
12119	Axuri eder bat	Martin Elizalde	Ilarregi
12158	Ileapaindegiko oparie	Irene eta Jokin	Ilarregi
16031	Eskulana	Gaspar Linzoain	Iragi
1509	Tarta	Nikasio Dorai	Iraizotz
3610	Kosmetika lotea	Bertso Aflaria	Iraizotz
3615	Gazta	Bertso Aflaria	Iraizotz

Zbaki	Produktua	Nori egokitu zaion	Nongoa
12784	Gazta	Bea Dorai	Iruztzun
7227	Sari berezia-Orahamia aintzin	Bea Villanueva	Iruztzun
19719	Ileapaindegiko bonoa	Mari Cruz Ramos	Iruztzun
2468	Zapata pare bat	Marimar Ansorena	Itsaso
7717	Gazta	Garbiñe Ansorena	Itsaso
9249	Sukalde zurezko tresna	Jose Joakin	Itsaso
13796	Erosketa bonoa (10€)	Xabi Garcia de Eulate	Ituren
5694	Bazkaria 2 pertsonendako	Iñigo Oyaregi	Lantz
3584	Zerri gizona	Ane Oskotz	Larrainzar
17874	24 zenbakia dun Saskittoa	Maitane Mendibe	Larrainzar
18181	26 zenbakia dun Saskittoa	Marisa Zenotz	Latas
18618	Bazkaria 2 pertsonendako	Marisa Zenotz	Latas
15501	8 zenbakia dun Saskittoa	Ana Goñi	Leazkue
2547	2 Giltzategi	Jabier Alduntzin	Leitza
13674	Bazkaria 2 pertsonendako	Pili Fernandez	Leitza
21601	Gazta	Ainhoa Astibia	Leitza
21602	Gazta	Ainhoa Astibia	Leitza
1106	Gazta	Lourdes Goñi	Lizaso
3965	Axuri eder bat	Txema Marturet	Lizaso
5968	Axuri eder bat	Maite Paskual	Lizaso
18206	Axuri eder bat	Idelfonso Goñi	Lizaso
14702	Esneki sorta	Jose Migel Burusko	Orbara
19520	Bazkaria 2 pertsonendako	Alazne Zigaran	Orkin
19553	Esneki sorta	Alazne Zigaran	Orkin
9456	Gazta	Pedro Larrainzar	Orokieta
9559	Bazkaria 2 pertsonendako	Nerea Oiz	Orokieta
13856	4 zenbakia dun Saskittoa	Lontxi Olano	Oskotz
19741	Erosketa bonoa (10€)	Sagrario Diez de Ultzurrun	Ultzurrun
20324	Axuri eder bat	Ainhoa Munarriz	Undiano
4294	Esneki sorta	Iraiti Otegi	Zenotz
8882	Erosketa bonoa (10€)	Astier Calvo	Zizur

Aurten zakukoa atera dugu

Urtetik urtera, sari hobeak zozketatu ditugu. Gehiago eta hobeak. Baina aurten? Aurten zakukoa atera dugu. Horrela esaten da ahal den guztia ematen denean, dugun guztia ematen dugunean. Inoiz baino sari gehiago eta inoiz baino hobeak. Bai zakukoa atera dugu.



Sagrario bere laukiarekin



Bea bere oramahaiarekin



Bernardo Etxeberria P.O

Zerrendan dituzue sariak eta sarituak, baina aipatu gabe ezin utzi SARI BEREZIAK. Hona zein diren:

Makila artistikoa, Joxe Etxarrik eskainia, Arantzara joan da, Maritxu Larretxearendako. Laukia edo Kua-droa, Anton Iraizotzek oparitua. Etxalekuko Sagrario Alemani egokitu zaio. Oramahaia, Angel Askuntzek eskainia, Irurtzuna eramanen dute, Bea Villanuevari egokitu baitzaio.

Zerriak

Eta zerriak nora joan diren eta nori egokitu zaizkien ez dugu aipatuko. Hor duzue sari guztien zerrenda eta bertan ikusiko duzue.

Hori bai, ezkurreen hazitako zerria, Zenozko Karakoetxeko semea eta Alkotzen bizi den Bernardo Etxeberriarentzak izanen da. Txorizo ederrak eginen ditu Berueteko Antsoneko bordatik eramanen duen zerriarekin!



Txaro Alkasena, saritueta bat.



Zozketatutako saskitxo bat.



Aitor eta Nora esatariak.

Saltzaileak:

Hor genbiltzan Zarrantzen saltzailerik gabe joan den bi urtean. Aurten saiatu gara eta opatu ere bai abenduaren 5ean edo. Eta abenduaren 13an deitu zidan esanez ea non bilduko ginen takoa emateko. 6 etxe eta 100 txarteko takoa ixtanpatean saldu du.

"Ez da hain zaila, lau peztan truke duroa banatzen dugu eta!"

Ez da harriztekoa, Floren bezalako euskaltzale eta militante batekin. Euskararen aldeko gauzetan, beti prest izanen duzu Floren.

Beste hau ere ez da bada saltzaile txarra

Ustez ez dugu euskaltzalea, erdalduna da eta nahiz gure alderdikoa izan, aspaldian ez da hemen bizi.

Wasapa igorri nion beste askori bezala, eta erantzuna berehala:

Zer Juantxo, txartelak saldu nahian?

Bera prest laguntzeko! Orain bizi den herrian saltzeko bere asmo ona erakutsi zidan. 200 txartel saldu dizkigu. Nork esan zuen ez zela euskaltzalea? Usteak ustel, politika alde batera uzten jakin duen pertsona izan da. Eta euskara lehen lerroan jartzen dakiena.

Zakurrak tako bat jan zueneko

Nolako nahigabea hartu zuen gure saltzaileretako batek! Tako bat zuen saltzeko eta txartel batzuk salduak ere bai. Nonbait, erori takoa, ohartu ez, eta halako batean non ikusten duen zakurra takoa ahoan duela. Erdi murtxikatua eta lerdez bete!

Zakur madarikatua! Urdai usai gozoa ote zuen takoak? Ezinezkoa iruditzen zaigu, oraindik txerriak erostekoak ziren eta!

Naiara Subies Nuin, Gelbentzuko bentakoa



Zer esanen zenuke Zozketa Mundialaz, Naiara?

Asko, asko gustatzen zaidala. Opari asko daudelako eta, horrela, opariren bat jasotzeko aukera handia duzulako, eta ...Bai, bai, dibertigarria dela iruditzen zait.

Orduan erakargarria egiten zaizu txerrien zozketa.

Bai, sariez gainera, inguruko jendeak boletoak erosten dituen bezala, inguruko jendea tokatzen zaizkielako sariak. Oso dibertigarria da ikustea nori tokatu zaion, zer tokatu zaion...Beti izaten da norbait ezaguna zortea izan duena. Hemen bertan sari handi bat egokitu da. Nire iloba Iratiri ere egokitu zaio sari bat ...Horrek ematen dio xarma.

Nola jakin zenuen?

Irratia oso gaizki entzuten da hemen. Eta kanpotik Wasapez gaztigatu zidaten. Eta nik ere nire adiskideei berehala jakin arazi nien, modu berean. Berehala zorianak eta txantxak. Oso zirrargarria, hunkigarria izan zen.

Gure aldetik, esker aunditz ematea bertzerik ez zaigu gelditzen. Horrelako adiskideekin Zozketak altzina egiten duela ez dugu beldurrik! Eta euskarak ere ez. Naiara Iruñekoa izanagatik ere oso-oso ederki ari baita euskaraz.

Consuelo Azpirotz Arano, Arraraskoa.



Arraratsen dugu Consuelo Azpirotz, Zelaiko etxetxoan bizi dena. Etxe honetan, urtero bitako hartzen dizkigute txartelak saltzeko.

Txerrien zozketa honetan aurten zerbait gutxiago saldu digute, baina izugarriko zortea izan dute. Consueloren seme-alabekin egoteko joan gara baina ez ditugu bertan harrapatu, ez Maite eta ez Joxe Antonio.

Consuelo, zer moduz aurtengo Zozketa?

Eginahalak egin ditugu eta saldu da saldu dena. Batzuetan gehiago beste batzuetan gutxiago.

Aurten zortea izan duzue.

Bai, hala tokatu da. Aurten suerte handia. Aszentsiok txerri bat eta Moisesek axuri bat (anaiak ditu)

Eta txerri hiltzea tokatzen da orain.

Ba, ez dugu eginen. Bale bat hartzeko asmoa du eta Auzako harategian gastatzekoa. Hori esan dit Aszentsiok behintzat.

Zozketa hasiera hasieratik laguntzaile izan diren familia honentzat besarkada bat eta urte berri on Consuelo!

Micaela Zabaleta: Suarbeko emakume **ausarta** (1)

(MARIA SANTOS ARCE, BERE AMA MICAELAZ)

Suarben urte aunditzetan izan da harakindegia. Basaburuko eta Ultzamako harakindegia, artxetarrena. Arce edo Artze deitura baitzuen bertako jabeak. Jose Maria Artze. Eta honen andrea, berriz, Micaela Zabaleta. Hauek izan ziren harakindegia zabaldu zutenak. 1930. urtean edo izanen zen gutxi gora behera. Guzti honetaz zerbait jakin asmoz, Maria Santos Artze Zabaletarekin egon gara, aurreko horien alaba. Orain Auzan bizi da Victorino Gelbentzu zenaren alarguna. Artxetarren umeetan gaztenaren aurrekoa da Maria Santos.



Joxe Mari eta Micaela

Emakume irripartsua, jolasturia, lasaia... Aspal-ditik dugu ezaguna. Ni zuka aritzen naiz bera-rekin, baina bera nirekin beti hika aritu izan da, adina diferentekoak izatean... Eta gaurkoan ere bai, eta horrela jaso dugu elkarrizketa, galderak zuka eta erantzunak hika.

Berueteko eta Eltzaburuko kontuak

Maria Santos, zuen atte nongoa zen?

Eltzaburukoa, Jose Maria Artze Saldias, eta e'tzakit ze itxetakoa.

Eta ama nongoa ziñuten?

Beutekoa. Micaela Zabaleta Zarrantz, *Aotzeneko* bordan jaioa.

Zuen ama umezurtz (huerfana) geldittu omen zen.

Bai, ama hil zitzaioleken hamaka urtekin. Geldittu yittuen atte ta alaba. Eta atte ezkondu yuen bertze emakume batekin, alargune, lau ume zittuena. Biño, emakume kaxkarra tokatu ta gizona ikeratuta yoan yuen Ameriketara eta hemen geldittu yuen alaba ta e'tzakit zein itxetara eraman zutela nexkato.

Eta Beruetetik Eltzabure noiz yoan zen?

Hara ze gertatu zitzaion. Eun batez yoan zelaik konfesatzera, apezak erran zioke: "Micaela, zaude zu peligruen hemen, ziatik zure amak patueik dauke gizon bat zuri gal-tzera botzeko". Eta norbaitekin konfiantza baldin bazun, neskato yoateko erran zioke. Eta apezak beak billetu zioke Eltzaburuko *Martiñenia* neskato yoateko, eta horrela. Beutetik alde!

Eta Eltzaburuko Martiñenian neskato eta bertan, Eltzaburun, opatu gizongaie.

Bai, Joxe Mari, gue atte, ta ezkondu ittuen. Atte zioke alargun, lau umekin. Hala ere, gue ama ezkondu!

Zuen ama nexkato, dirurik gabia. Eta atte're...

Bai, biño itxekoandriak eta nausiek erran zioteken: "*Viaje de novios* in biar duzie!" Eta yoan ittuen *viaje de novios Martiñeneko* gaztandire. Eta yoan ittuen atte zaldi'betian eta ama bertzian, eta launek zortzi edo hamar baziren, haiek denak. Kartak hartu eta kartetan aittu yokoan. Atsalde guzien. Eta gero itxera torri illunabarrerako.

Zuen ama neskatxe gaztia, senarra aunditzez zarragoa, honen lau ume...Nola moldatu zen senarraikin?

Hamalau urten diferentzie. Moldatu? Ongi. Guk san-ta sekule, sekule, sekule, ez'tiagu aittu yeus. Klaro, familie iñik, bigarren andria ziken, ta beste hamar haur izan zittin honeekin (zazpi bizik eta hiru hillek) Sekule, sekule guk amai ta ez attei aittu erraten: hok ttuk lenbixko amanak eta hok bigarrenanak. Seeee-kule! Eta hok, zarrenak, laundu attei ta amai umiak hazten; ta dena-dena. Familie, unittue!



Micaela, Olaguen, Pepita, bere alaba, bisitatzera joan zen egun batez.

Suarben jarri ziren bizitzen

Eta Eltzaburun zuetako nor yayo zen?

Ttimotteo, Ttimotteo. *Baldomeron* itxan. Ta gero torri ittuen Suerbeko *Etxebertzera*, maixtar.

Nekazari, yakina. Eta gero nola hasi zeen harakin?

Gure amak erraten zioke attei: "Zu, zuk erosten bauzu haragie ta hola, nik saldik'ot herriz herri". Eta gure attek: "Baña nola yoan bia'zu umiok-eta denak itxan utzita? -Igual da, nik manajetuk'ot." Eta patu ziken. Hasi ittuen ardiek hiltzen ta ama, baziteken zaldi'bet eta, herriz herri saltzen. Esportak bi aldetara ta, saltzen. Ta hortik torri duk Suerbeko harakiña.

Ardiek-eta nok hiltzen zittuen?

Biek, biek, senar-emaztiak. Partittu ta dena. Gure amak bazekiken dui'kabe. Bazioken deseioa bizi-tzeko! Je, je, je!!!

Ardiek-eta erran duzu. Biño txekorrak eta, noiz?

Beranduago. Miel ta Ttimotteo mutillek in baiziren, hasi ittuen txekorrak hiltzen.

Baña ordurako, Etxebertzia utzi eta Alortxian ziñeten.

Bai, bai, Alortxia audo samar yoan ittuen. Nik pri-mera komunioa in'ien eta erosi ziteken Alortxia eta han in ziteken mataderoa. Hiltzeko ta dena, majo prestatue.

Eta etxeko lanak?

Pepita alabak zaharrenak asko lagundu zuen ama Micaela

Bai, Micaelak etxeko lanak eta negozioa zera-matzen. Hala ere kontuan hartu behar da izan zituen hamar haurretan bigarrena nes-katoa izan zuela: Pepita. Eta neskato zaharrenak hurrengoak hazten lagundu behar izaten zuen.

Gehiago oraindak hainbeste lan zen etxe batean. Bai, Pepitari eskolara aunditz joateko erreskadan anai-arreba aunditz zetozkion eta ttiki-ttikitatik la-nean ari beharra tokatu zitzaion.

-Ttiki-ttikitatik haurtzai! -Hala kontatzen digu Mari Sol Altuna Artzek, Olaguekoa eta Iruñen bizi den bilobak.

-Haurtzai, biño bertzerik ere iñen zuen.

-Gue amak lan aunditz in zuen Alortxian. Bigar-ren ezkontzako neskatotan zarrena, eta beti haur tzai ibilli zen. Eta gero, yosten ikasten ibilli zuten Iruñen eta etxeko arropak eta berak itten zituen. Bai, gue amak, gaztia zela, etxeko haurren martxa guzie eramaten zuen. Eta etxeko lanak'e bai.

Eta denbora zuelaik, arropak yosten etxerako; eta kanporako're bai.

Eta beti hola izandu zen, gure itxan'e gukin hala izaten zen: ama paregabia!

Pepita, nahiz ezkondu ondoren Olaguen bizitu, Suarbeko bere senideekin izugarrizko harremana izan zuen beti. Pentsa zenbateraino, bere gorpu-tza Suarbeko kanposantuan ehortzeko agindu baitzuen!

“Orain, munduko onena izateko aukera ikusten dut”

26 urterekin golfaren mailarik gorenera iristea lortu du kirolari larraintzarrak. Iruñean etxea erosi berri du eta bertan elkartu gara berarekin, nahiz eta maiz joaten den Larraintzarra gurasoen etxera. Atsekabez dio Ultzaman ikasitako euskara galtzen ari dela, ingelesaren mesedetan, mundu osoan zehar ibiltzen baita. Gure kirolari olinpiko bakarrari egindako elkarrizketa duzue hemen.



Lehenbiziko gauza, nola hartu duzu hainbeste txapelketaren ondoren etxera itzultzea?

Egia esan, oso ongi. Pozik nago etxean egoteaz, lagunekin, familiarekin... Asko gustatzen zait etxean egotea, etxetik urrun bainago urte osoan, eta egun batzuk hemen egon ahal izateak asko poztzen nau. Hala ere, pena pixka bat ere ematen ditaurtengo denboraldia bukatu izanak, ongi jokatzeko ari bainintzen azkenaldi honetan. Orain bi hilabetez egonen naiz geldirik, baina espero dut indarberritu eta azkenaldiko maila azkar hartzea.

Noiz hasiko da aurtengo denboraldia?

Otsailean hasiko dut nik. Aurre denboraldi ona egiteko asmoa dut, asko entrenatuz eta txapelketak pixka bat beranduago hasiz. Orduan, urtarrila erdialdean Estatu Batuetara joanen naiz entrenatzera, eta otsailean Australian eginen dut lehenbiziko lehiaketa.

Zer da normalean egiten duzuna hona etortzen zarenean?

Bada, denetik pixka bat, baina bereziki golfaz deskantsatu. Padela asko gustatzen zait, Ultzamako mendietan barna paseotxoak egitea ere bai, eta bereziki lasai egotea. Hori da gustatzen zaidana, toki lasaiak, trafikorik ez dutenak, jende askorik gabeak... eta bai Iruñean eta baita Larraintzarren ere ederki sentitzen naiz, ni sortutako tokia da, eta asko maite dut.

Suposatzen dut urte osoan bisitatzeko dituzun beste tokiak guztiz kontrakoak direla...

Beno, gehiago da golfa eta hotela. Ez dugu beste askorik egiten, lehiaketara goaz. Hala ere, hiri batzuk bisitatzeko aukera ere izan dut, bereziki profesionaletako lehenengo urtean, oso hiri politetan egon naiz. Baina egia esan, deskantsatzea ezinbestekoa

da kirol profesionalean, eta ez gara hoteletik eta golf zelaitik askotan ateratzen.

Non egon zara aurtengo?

Australian hasi zen denboraldia, baina han ez nintzen egon. Singapurren egon nintzen, Tailandian, Estatu Batuetako hainbat lekutan: Kalifornia, Arizona, San Francisco, Texas, Alabama, Florida... European ere bai, Frantzia eta Britainia Handian. Eta denboraldi amaiera Asian egiten dugu: Korean, Txinan, Taiwanen eta Malasian, eta urtea amaitzeko, Mexiko eta Florida. Eta aurtengo ere Rio de Janeiroko olinpiar jokoetan egon naiz. Hau da nolabait esanda nire bizitza, hegazkinak eta bidaiak.


Denboraldia ongi amaitu duzu, bi txapelketa irabazita.

Bai, Koreako eta Mexikoko txapelketak irabazi ditut. Lehenengo aldia zen LPGA mailako txapelketa bat irabazten nuela. Bigarrena izana nintzen bizpahirutan, baina oraindik ez nuen irabazitako txapelketarik maila gorenean. Oso pozik nago irabazteaz eta bereziki jakiteaz maila gorenean egon naitekeela, eta nola ez, gehiago lehiatzeko irrikaz nago. Golfaz gozatzen ari naiz, eta emaitzak lagun izanda, datorren denboraldia gogo handiekin hartuko dut.

JOKO OLINPIKOAK

Joko Olinpikoetan, ordea, ez zenuen espero zenuen maila eman?

Bai, Joko Olinpikoak aste oso berezi bat dira. Lehenbiziko aldia nuen bertan eta gozatzerako joan nintzen. Kirolari baten erronkarik handiena da bertan parte hartzea. Nire anaia eraman nuen caddy (laguntzaile) gisa, eta ikaragarriki ongi egon ginen. Biok maite dugu kirola, eta hainbat lehiaketa ikustera joan ginen: saskibaloia, gimnasia, igeriketa... ahal izan genuen guztia. “Villa Olinpikoan” munduko kirolaririk



Ezker eskuin: Mexikokoko “txapela” irabazi ondoren, Joko Olinpikoetan anaiarekin batera eta Koreako kimonoa jantzita, bertako txapelketa irabazi ostean.

onenekin egon ginen, eta esperientzia ikaragarria da hori, ahaztu ezingo ditudan 10 egun izan ziren.

Hala ere kirol mailan makal xamar?

Maila hobea eman nahi nuen, amaieran bereziki. Dominetatik gertu egotea zen nire erronka, baina golfean batzuetan ez dira gauzak nahi bezala ateratzen, eta hala izan zen. Hala ere, asko ikasteko balio izan zidan.

Ultzama aldeko olinpiar kirolari bakarra zara, handia da hori.

Bai, asko poztzen nau horrek, kirolari batendako bertan egotea ikaragarria da, bertan egon, zure herrialdearen ordezkari izan... gauzarik handienetakoa da. Ea 2020ko Tokioko olinpiar jokoetan egoterik dudan.

Noizbait esan duzu munduko onena izateko aukera ikusten duzula, gertu ikusten duzu hori?

Asko gustatuko litzaidake hori, kirolaren goren mailara iristea alegia. Eta, bai, orain talde ona daukat, caddy eta entrenatzaile onak ditut, eta asko hobetzen ari naiz. Urte batzuen bueltan, egia esan behar badut, bai, nire burua han goian ikusten dut.

GATOZEN JATORRIRA

Nola iritsi da Larraintzarren bizi zen neskatza bat golfaren gorenera?

Bada, txikitan askotan joaten nintzen aitarekin golfean aritzera. Egia esan, nire gurasoek den-dena eman didate, txikitatik golfean aritzera, beste kirol batzuetara, ingeles klaseetara eta abar eramaten ninduten, denetik izan dut. Espainiako txapelketak lehiatzen hasi nintzen, gero selekzioan sartu nintzen eta Europako txapelketak lehiatu nituen 13-14 urte nituelarik. 18 urtetan Estatu Batuetara joan nintzen ikastera, eta bertan barneratu nuen profesionala izateko grina. Jauzi kualitatibo handia izan zen hori, eta 21 urterekin profesional gisa hasi nintzen. Europara itzuli eta bertako txapelketak jokatzeko hasi nintzen, maila onarekin gainera. Hortik Estatu Batuetara itzuli nintzen LPGA txapelketak jokatzera (maila handienekoak), eta hiru urte daramatzat bertan.

Oso txikitatik hasi al zinen maila ona erakusten?

Ona nintzen txikia nintzenean. Espainiako txapelketak irabazi ditut adin tarte guztietan, Europako txapelketak ere irabazi ditut... beraz maila ona nuen, bai. Baina ez da gauza bera amateur mailan aritzea eta profesional mailan. Oso gauza ezberdinak dira.

Zure aita zioen oso txikitatik bera baino hobea zinela.

Bai, berarekin kirol pilatan aritu naiz: golfean, frontisean... azken honetan kosta zitzaidan berari irabaztea, bera ere kirolari ona izan baita txikitatik, baina egia da golfean pixka bat lehenago irabazten hasi nintzaiola, baina jokalaria ona da.

Txikitan Ultzamako gehiagorekin aritzen zinen golfean?

Bai, 8-10 lagunekoa talde txikia ginen 5 bat urteko adin diferentziarekin gure artean. Eta bertan golfean aritzen ginen Gerendiango zelaian, Rogelio entrenatzailearekin, edo futbolekin, igerilekuekin ere joaten ginen... hau da, ez zen lehia soilik, edozertan arituta ere gozatzea zen helburua, aisia, kirol eta laguntza-uneak ziren haiek.

ETORKIZUNAZ SOLASEAN

Noizko jartzen duzu munduko onena izateko erronka hori?

Egia esateko, ez dut datarik jartzen. Hobetzen jarraitzea da nire erronka, eta horrek munduko onena izateko balio badit ederki, eta munduko hamarrena izateko balio badit ederki ere. Nik nahi dudana da golfaren etapa hau amaitzen dudaneandaukan guztia eman dudalajakitea, eta ahal izan dudan guztia hobetu dudala. Nik daukadan dena emanen dut, eta ikusiko dugu noraino iristen naizen.

Golf jokalaria profesional bat izanda Ultzaman, ikusten duzu afizio gehiago dagoela bailaran?

Ez dut uste, golfa gehiago izan da hiriko kontu bat, ez hainbeste Ultzamako, bagara batzuk aritu garenak, baina gutxi. Ez da kirol merkea gainera, eta orokorrean jende gutxi aritzen da.

Ipuin kontalari gazteak gurean



Ágata Urrutia pertsonaiaren irudia

Beltzuntzen jaioa da Maialen Diaz, nahiz eta orain Madrilen bizi den. Aizarotzen izan genuen sare sozialen eta "ligoteoaren" inguruko bakarrizketa dibertigarri bat antzezten.

Nola hasi zinen ipuin kontalaritzan?

Nik berez antzezte prestakuntza daukat: Iruñeko antzerki eskolan ikasi nuen eta kasualitatez sartu nintzen ahozko narrazioaren munduan, lan eskaintza bat jaso nuelako. Ez da gauza bera antzezte edo ipuinak kontatzea, nahiz eta hainbat gauza komun badituzten, eta bigarren esparru hau ere oso gogoko nuela sumatu nuen. Hurrendako ipuinak kontatzen hasi nintzen eta aurrerago helduei kontatzera ere pasa nintzen.

Zer proiektu duzu orain eskuarte?

Alde batetik, helduei zuzendutako bi saioekin ari naiz. Lehenengoak "Plazerra gurea da" du izenburua, eta bertan ipuin erotikoa kontatzen ditut, Mirian Uhalte piano-jotzailearen zuzeneko musikaz



"Ipuinek kriston magia dute"

Baztandarra dugu Amaia Elizagoien eta han-hemen dabil ipuin kontalari. "Ameli eta Xirrikituen jostunek" ikuskizunarekin Erasora hurbildu zen Olaia musikariaren laguntzaz. Esan Erran irratiari izan genuen Gasteiztik egindako telefono elkarrizketan.

"Duela urte eta erdi hasi genuen bidea, eta orain arte gelditu ez. Gure ametsa zabalduz goaz. Jendeak gustura hartzen ditu ipuinak, nahiz eta leku batzuetan besteetan baino zabalduago egon kultura hau; Bizkaira, Gipuzkoara eta Arabara gehiago joaten

lagunduta. Publikoaren irudimena kitzikatzeaz gain hainbat gai jorratzen ditut bertan, hala nola desira mota ezberdinak edota gorputz anitzak.

Bestalde, "Lagun bati gertatu zitzaien" ikuskizuna estreinatu berri dut. Antzerkiaren eta kontakizunaren erdibidean dagoen ikuskizuna da: hainbat istorio kontatzen dira bertan, baina kontalariak, Ágata Urrutia izeneko izaki birtualak, badu bere pisua ere. Sare sozialen eta ligoteoaren arteko elkarreragina jorratzen da, betiere fantasiaz eta umorez.

Horretaz gain, hurrendako ipuin saioak ere egiten ditut: hurrengoak, Birjina Albirarekin batera; biok garbitzaile bilakatuta ipuinak kontatuko dizkiegu lau urtetik goragoko haurrei.

Ipuinak eta bakarrizketak euskaraz... nola dago zuen ofizioaren egoera?

Ohituta gaude ipuinak eta haurtzaroa lotzen, baina adin guztietako jendeak gustuko du ipuinak entzutea. Finean, narrazioak mundua ordenatzeko modu bat dira, errealtatea ulertu edota fantasiaren planoan eraldatzeko bide bat. Gainera, entzuteko gaitasunak irudi mentalak eraikitzea eta enpatia garatzea ahalbidetzen du. Entzuteko ohitura ona garatzeko bidea irekitzen dute ipuinek, eta nire ustez presentean egon beharko luke ohitura horrek gure bizitzetan. Jende askok, halere, ez du ohiturarik ipuinak entzuteko joateko, baina joaten direnek ongi pasa ohi dute; beraz, ofizio honek aurrera egiteko jendearen denbora behar dugu, ipuinak entzuteko etortzeko tartetxo bat ateratzea. Azken finean, narratzailea bezain garrantzitsua da publikoa. Horrelako ikuskizunetara joateko ohitura sustatuko balitz, guztion onuran islatuko litzateke.

gara. Bertako liburutegietan ia astero egiten dituzte halakoak eta Nafarroan oraindik pixkanaka-pixkanaka zabalduz doaz. Guretzako oso garrantzitsua da hau, ipuinek kriston magia dutelako".

Nolakoa da zuen ikuskizuna?

Erason egin genuena Olaia eta biok gara, berak trikitixa eta gitarra jotzen ditu eta hurrendako ipuinak egiten baditugu ere, balore zehatzak dituen eta Euskal Herriko kultura kontuan hartzen dituzten edukiak lantzen ditugu. Bestetik, konturatu ginen euskal kantak galtzen ari zirela, eta iruditu zitzaigun oso garrantzitsua dela horren alde egitea.

Abestiez gain ipuinak galtzeaz al daude?

Hein batean bai. Alde batetik ipuinak "infantilizatu" egin dira, eta horrek nolabait helduak atzera botatzen ditu ipuinen mundura itzultzeko eta, bestetik, telebistaren eta orokorrean "pantailen" eragina erabatekoa da gure egunerokotasunean.

Gureak dira oihanak (eta 7)



Latasako mintegia biribila, harrizko paretekin. XVIII mendekoa da. Orduan ere oihanez kezkatzen zen Administrazioa.

Santiago Etxeberria, Orokieta Apezneneko bordakoari egin nion elkarrizketa bat bizkarrezur hartuta, sei artikulutxo idatzi ditut gure oihanez. Elkarrizketa eta Orokieta-Erbiti kontzejua ekarri ditut gogora, baina hau azkeneko artikulua denez, ez nuke bukatu nahi Joxe Oitz aipatu gabe, orain bi urte hil zena 101 urtetan Orokieta Ankamotza etxean. Arbolak maitale sutsua eta jakituna ere bai.

Eta Joxe Oitz gogoan dudala, Santiagoren esanak eta nik nire bizitzan herri hauetan ikusitakoa kontutan hartuz, hainbat aholku eman nahi nuke:

-Herri bakoitzean oihanak zaintzeko batzorde bat behar luke izan. Edo gutxien gutxienez, alkateak ardura hori serio hartu beharko luke.

-Lantegiak ateratzen direnean, kalteak saihestea da eginbeharretako bat. Eta horretarako gainean egon behar da.

-Oraingo palak direla eta, oso erraz egiten dira pistak, errazegi. Pistak beharrezkoak soilik, eta ez metro bat ere behar baino gehiago. Eta edozein pista egiteko, baimena erdietsi behar da, basozainari aurretik eskatuz.

-Epaitzak, neurritz, egurrak diru asko balio baitu eta diru gorde egin behar da hainbat beharretarako. Surik ez eman egurrari!

-Landaketak bai, baina oso kontuz! Orain bertan arbola besterik ez dago gure mendietan (Larreak, irelarreak, sasidiak, gaztaineriak...ez al ditugu behar?)

-Pagadiaren izurritea eta pinuaren hedatzea ikusten ari naiz. Pagadia gure alderdi gehienetan gelditu gabe berritzen. Eta pinua, berriz, Ostiz eta

ekialdeko beste herri batzuetan. Ez al zaie topea jarri behar?

-Gure gaztaineriak (aspaldixkoan kontzejuek bereganatu dituztenak) ez al ditugu zaindu behar? Ehiztariak honetan zerbait esan beharko lukete, gaztaina ongi baitatorkie basurde, orein, orkatz eta beste basa piztiei.

-Arbolak nolahi eta nolahi landatzeari STOP. Behar ez diren tokietan inola ere ez.

Zeinen ederra den haritz zabal baten azpian itzalpean egotea! Eta eskuez azalaren latza laztantzea? Zeinen lasaigarri den besoz ezin hartu halako pago lerdan bat besarkatzea! Eta gora begiratu arbola tantai baten altura neurtzea?

Gureak dira oihanak...bai, baina aundizetan ematen du kondearenak direla.

P.D.: Ez dugu deus aipatu arboletan ikusten diren gaitzez: Adibidez, zumarra gaitzak akabatu du. Gaztainetan aspaldikoak dira gaitzak. Platanoak joan den 20 urtetan gaitzez beteak daude. Lizarra eta intxaurra beste honenbeste... Eta ez da aterabiderik ikusten.



HIZTEGIA
 AHOLKU: kontseju
 PALA, pistak egiteko makina: hondeamakina du izena.
 IZURRITE: peste. Pagadia gehiegi ari da he-

datzen; hortaz pestea aipatzea.
 BERRATZEN: gehitzen
 OREIN: ciervo
 ORKATZ: corzo
 TANTAI: arbola luzea

Euskaldun gazteei erronka

Mondragon Unibertsitatean eta HUHEZI fakultatean, beste ikastaro batzuen artean "Hizkuntza biziberritzeko Estrategiak" deitzen dena dago, batez ere baztertuak dauden hizkuntzetarako jende aditu edo espezializatuak sortzeko ikastaroak. Beren herrietan nola lan egin, nondik jo, lehentasunak markatu... denetatik ikasten dute, eta, batez ere Ameriketatik etortzen dira ikastaro hori egitera.



Nasa Herriko haurrak. Nasa hizkuntzan ikasten dute, maistra bihoztun batekin. ARGIA

Horietako biri egin zieten lehengo batean elkarriketa bat Gara egunkarian. Oso interesgarria. Eta hara zer zioen horietako batek, Viviana Gonzalez, nasa hizkuntza darabilenak: "Nire ustez, interesgarria izanen litzateke ikastaro hau ez izatea soilik kanpoko jendearendako, baita hemengoendako ere, batzuetan kanpotik hobeki eza gutzen baitute prozesua gazte euskaldunek berek baino; izan ere, euskaraz aritzeko aukera guztiak dituzten fakultatean bertan gaztelaniaz hitz egiten entzuten zaie euskaldunei. Aurten, gainera, duela bost urte baino gehiago gertatzen dela ohartu naiz". Laburtuz: kanpotik datorrenak hobeki ikusten omen du hemen zer ari den gertatzen. Eta gaur bertan euskara gutxiago erabiltzen omen da orain 5 urte baino.

Nire ustez, lehenbiziko arrazoia izan liteke eztabaidagarria, nahiz kasu askotan kanpotik begiratu, aurreiritzirik gabe, gauzak neutralago eta garbiago ikusten diren. Eta zer esan euskara orain 5 urte baino gutxiago erabiltzen dela eta? Hemen behintzat hori ari da gertatzen, bai Basaburuan, bai Ultzaman... Ni hori ari naiz usmatzen, sumatzen, entzuten eta ikusten. Vivianak Mondragonen ikusi duena nik ere hori bera dut ikusten.

Gehiago esanen nuke, euskararen erabilpenean, euskararen transmisioan eta euskara hizkuntzaren erosioan atzeraka ari garela eta hori, zoritxarrez, soziolinguista guztiei entzun izan diet.

Bai, Viviana Gonzalezek (Nasa hizkuntza duena) eta bai Filomena Ninak (Aymara hiztuna) egiten dituzten bi gogoeta ere ekarriko nituzke hona:

- 1.- "Ez dugu nahi jendeak nasa yuwe pentsakera zuriz mintzatzea. Nasa bihotzez mintza daitezela nahi dugu. Horrek aukera emanen digu bizirik irauteko.
- 2.-Eta bukatzeko beste honako gogoeta eta eskariora gazte euskaldunei: "Mezu bat gazteendako etsi ez dezaten. Haiengan dago euskararen lekukoa eta asko dute jokoan".

Ardo txarrak eta erdi ozpinduak saltzen ari dira gaurko egunean Euskal Herrian. Bada zerbaiten premia. Bai, ardo frexkoa behar dugula esan digute Ameriketatik etorritako jende hauek.

Eta amerikar gazte hauek euskaldun gazteei bota diete erronka. Erantzunik topatuko ote dute?



LEHENTASUNA: Prioridad

AURREIRITZI: Prejuicio

Lurrak ezinbesteko garrantzia dauka pertsonon bizitzan, hemen zein mundu osoan. Lurraren aldeko borroka ezagutu zuen Lur Gil Pulunpeko kazetariak, mundu osoko jendearekin batera Brasilen hilabete eta erdiz egonda. Sao Paoloko "Escola Nacional Florestan Fernandes" eskolan egon zen formakuntza politikoa jasotzen eta nekazariak okupatutako lurretan ere egon zen. Urtarrilaren 20an, Larrantzarko bentan egingo den solasaldian, bertan ikasitakoa azalduko du.

Solas egin dezagun lurraren garrantziaz



"Guk lurra zaintzen badugu, hark ere gu zainduko gaitu". Hala baieztatzen dute, zalantzarik gabe, Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimenduko (MST) kideek.

Izan ere, Brasilen gutxi zaindu dute lurra portugaldarrak bertara iritsi zirenetik. Lurjabe boteretsu gutxi batzuen esku egon da lur guztia, monolaborantza ezarri zuten kolonizazioaren hasieratik, eta azken urteotan agrotoxikoak era masiboan erabili dituzte "produktibitatearen" izenean. Honek lurrarengan eragina badu, baina baita pertsonen osasunarengan ere.

Bada, ordea, lurrarekiko bestelako harreman bat proposatzen duena. Tartean MST mugimendua. Lurraren jabetza banatuko lukeen Landa Erreformaren aldeko borroka zaharra da Brasilen, baina duela 30 urte, MSTk pausu kualitatibo handia eman zuen: landa erreforma eskatuzetik gauzatzera pasa zen.

LURRAK OKUPATU

Lurrik Gabeko Nekazariak lurjabe boteretsuen lurrrak okupatzen dituzte funtzio sozialik betetzen ez badute. Bertan kanpamentuak eraiki eta lurra lantzen hasten dira. Urteak igarota legezko asentamenduak izatera igarotzen dira. Guk bertatik bertara ezagutu genuen "Primer do Sul" asentamendua eta beste 11 kanpamendu. Guztira Nafarroaren tamainako eskualdearen lurraren %30 haien esku dago, hau da, jabetza pribatua izan ordez, jabetza kolektiboan.



BIZITZA GARATU

Asentamendu eta kanpamenduetako familiek era kolektiboan garatzen dute haien bizitza. Etxebizitzaren eraikuntzatik hasi, eta MSTren borroka sektoreetan parte hartuz: janariaren ekoizpenean, hezkuntzan, osasungintzan, masa frontean, emakumeen sektorean, gunearen koordinazioan... betiere, erabakitze gunean gizon bat eta emakume bat egonik.

EKOIZTU

Ez da soilik bizirauteko ekoiztea. Garai batean kafearen eta azukre kafearen ekoizpen lana esklaboek egiten zuten lurjabe handiendako. Orain esklabo beltz haien ondorengoek egiten dute, lurjabe handi horien ondorengoendako, eta lau txanponen truke.

MSTk monolaborantza eta agrotoxikoak deuseztatu nahi du, eta, teoria marxistari jarraituz, ekoizpen kolektiboaren irabaziak era kolektiboan banatu nahi dituzte, jabetza pribatuaren aurka egin ez.

Horregatik, bertako 500 familiek fruta-arbolak, barazkiak, landare sendagarriak, kafea... lantzen dituzte, gero haiek sortutako kooperatiban elkartu eta herrietan zein hirian saltzeko. Honela bizi dira, haiendako onura, eta produktuen jaleendako ere bai. Nekazaritza ekologikoaren baloreetan oinarrituta, era organikoan ekoizten dute ia guztia, hau da, lurraren osagaiak zainduz, produktu ezberdinak elkarrekin jarritz, batzuek besteak laguntzen baitituzte, produktu artifizialik gabe...

Iñigo Astiz eta Maite Mutuberria, "Kixotenean" liburuaren egileak



Nola bururatu zitzaizuen liburua argitaratzea?

IÑIGO: Urteurrenak aukera ona izaten dira kazetariondako erreportaje berezi eta sakonak proposatzeko, eta horixe izan da Kixotenean lana abian jarri duen aitzakia ere. Lau mende bete dira, hain justu, 2016an literatura modernoaren bi izen nagusi hil zirenetik. Duela 400 urte hil ziren William Shakespeare eta Miguel de Cervantes, eta, beraz, bi aukera ikusi nituen: lehena zen Shakespearek ezagututako lurretara joatea eta han ikusitakoarekin kronika sorta bat idaztea, eta bestea zen Cervantesek deskribatutako lurretara joatea eta han ikusitakoa deskribatzea. Bertsio merkeena hautatu nuen. Uztailean furgoneta hartu, liburuz bete, eta Mantxara joan nintzen Kixote pertsonaia pertsonalki ezagutzera. Fikzioa eta errealitatea gurutzatzen diren bidegurutzera heltzea zen asmoa. Artikulu sorta bat idatzi nuen han bildutakoekin BERRIA egunkarirako, eta artikulu horiek dira Kixotenean liburuaren muina. Hasieratik argi ikusi nuen, gainera, kronika horiek testuez gain, ilustrazioz osatzea polita izango zela, eta berehala pentsatu nuen Maiteri laguntza eskatzea. Elkarrekin izan ginen eskolan, eta geroztik beti jarraitu dut bere lana. Askok gustatzen zait egiten duena, eta bere irudiak proiektu honekin primeran lotzen zirela pentsatu nuen. Nahiko proposamen zoroa egin nion, baina harrigarriena da onartu egin zuela.

MAITE: Iñigoren proposamena jaso nuenean polita iruditu zitzaidan lehenengoz bion artean elkarlanean aritzea. Berehala, zirriborro batzuk bidali zizkidan eta haietan igartzen zen proiektuak esperimentatzeko aukera emango zidala. Horregatik, baiezkota eman nion, Iñigo txikitatik ezagutzen dut eta banezien berak sortutakoarekin gustura arituko nintzela.

BERRIAN udan argitaratutako materiala luzatu edo aberastu al duzu liburua osatzeko?

IÑIGO: Liburuago egin dugu. Egunkarian sei kronika argitaratu ziren, guztira, bakoitza bere irudiarekin.

Libururako espazio arazoengatik kanpoan gelditu ziren hainbat gauza sartzeko aukera izan dugu, zarpigarren kronika bat sortu dugu, eta hainbat bidaia ohar eta marrazki berri ere gehitu ditugu liburuaren liburu izaera indartzeko. Borobiltzeko.

MAITE: Ilustrazioaren aldetik, testu berriendako irudiak sortu ditut. Baina batez ere, liburuari nolabaiteko zentzu orokorra edo lotura eman nahi izan diot azaleko eta barruko hainbat irudixoren bidez: testuan aipatzen diren korapiloz betetako soka batek liburua literalki lotzen du.

Lehenengo egunean aurkeztu zenuten, zer harrera izaten ari da?

MAITE: Uste dut jendeak eskertu duela liburuak irudimenari ateak irekitzea, testuak eta ilustrazioak bata besteari bidea ixten ez diotelako. Gainera, hain ezaguna dugun klasikora ikuspegi berri batekin hurbiltzen da Iñigo, liburua irakurri duenari hausnarketa eraginez eta irakurri ez duenari liburua hartzeko go-goa emanez.

IÑIGO: Oso pozik nago ni ere. Liburua oso polita gelditu da, objektu polit-polita da, eta hainbat jendek idatzi digu esanez jada oso gustura irakurri eta ikusi duela. Gainera, irudiak nik egin ez ditudanez, lasai asko esan dezaket, pribilegio hutsa dela helduendako liburu bat idaztea, Maitek egindako irudiek duten kalitatezko ilustrazioekin. Argialetxeak ere ederki ulertu du irudi eta testuak batera joateak proiektua aberasten zuela.

Non erosi daiteke?

IÑIGO: Elkar argialetxeak atera du, eta haiak banatu dute liburua; beraz, Euskal Herriko txoko guztietan dago, ziur. Mantxara ez dakit heldu den oraindik. Igual joan beharko gara berriz begiratzera.



JOAKINA ETXEGIA, BERUETEKO BIZTANLEA ETA ETXEKO LANGILEA:

"Lehen astoak bezalaxe egiten genuen lan"



Aldizkariaren atal hau duela pare bat urte jaio zen. Gure intentzioa krisi ekonomikoaren ondorioz lan berriak bilatu behar izan zituen jendea laguntzea zen, guztiona den PULUNPEN horretarako tarte bat eskainiz. Denbora pasa ahala eskualdean betidanik lan eta bizi den jendea ere sartzan hasi ginen eta orduan konturatu ginen huts handi bat egiten ari ginela: ez ginen tarterik eskaintzen ari eskualdean zaintza lanez arduratzen diren "etxeoandreei". Lan eta aukera berdintasunaren alde eta orain gutxi arte etxe barruan geratu diren lanek merezi duten errekonozimenduaren alde, atal honetan lau elkarrizketatik bat lanbidetzat zaintza lanak dituen emakume bati egiten diogu hemendik aurrera.

Eta gure gaurko protagonista Joakina dugu, Igoako alaba baina aspaldi Berueteko *Atxoaneara* bizi dena. Urteko azken egun hotz eta eguzkitsu horietako batean jaso gaitu bere etxean, lasai-lasai sofan eserita, sutondoan hitz egin dugu denetarik, nahiz eta hemen lan kontuei buruz idatziko dugu bakarrik.

Azalduko duzu nolakoak diren zure bizitza eta lana...

Igoan jaio eta Beruetera ezkondu nintzen, *Atxoaneara*. Lanean txiki-txikitatik egon nintzen, *uuf...* lehen, astoak bezalaxe egiten genuen lan: dena etxean egiten genuen. Finka handia genuen, eta dena etxekoa: artoa, ogia, dena bertan egin. Eskolara joan nintzen, 15 urtera bitarte; halere, eskolatik atera eta arditara joaten ginen, ez pentsa!

Denetarik egiten zenuten...

Bai, bai, ardiak jezten genituen, behiak jezten genituen, ongarrira... Etxetik kanpo egoten ginen eguzkia erretzen gintuen arte! Hori bai, gero itzaletako lana hartzen nuen hilabetez.

Denbora pasa ahala ezkondu eta lanean segitu

ere...

Bederatzi anai-arreba ginen, gero lau seme-alaba izan ditut eta horietako bakoitzak 2 seme-alaba izan dituzte. Ezkondu ondoren ere lana leporaino. Gizona belarretara joaten zen, eta ni bakarrik gelditzen nintzen: lau ume, otorduak, labadora, etxea garbitu... eta, gurea ez da hain handia, baina bazituen lau gela eta sala... maneiatzeko nahikoa. Eta garbigailua berandu ailegatu zen, ez pentsa; hori bai atera bezain pronto erosi nuen bat! Aldaketa handia ekarri zuen labadorak.

Goizean goiz esnatu eta gau partera arte lanean: txikiak esnatzen zirenerako hazienda ateratzen genuen, nahiz eta geroago motila hartu genuen, hori bai, semeak txikiak zirenean.


Zein zen gutxien gustatzen zitzaizun lana?

Ohituta nengoen lan guztietara eta ez nuen planteatzen zein nuen gustuko eta zein ez.

Atzera begira, zure gaztarotik zerbait aldatuko zenuke? Zerbait desberdina ikasi, norabait bidaiatzea...

Horretan ez nuen pentsatzen ere, gainera autoan zorabiatzen nintzen. (*kar, kar...*)

ZORIONAK ZUREN



INAKI



Juan Karlos



Andoni



AURITZ



Kattalin



Mirentxu eta Benita



AIMAR ETA ARKAITZ



SAGRA



EKHI

Mural ekologikoa

Neguan askotan eginbeharrak jaisten dira, lasaiago gaude, batzuetan zer egin jakin gabe, edo umeak non sartu ez dakigula ere. Alde batetik, argi dago ona dela umeak aspertzen ikastea, haien sormena lantzeko ere beharrezkoa baita asperraldietatik pasatzea. Hala ere, gaur oso proposamen interesgarria dugu arratsalde eder eta dibertigarri bat pasatzeko: goroldio murala.

Azken hamarkadetan hirietan artea ikaragarri hedatu da, batzuetan espero ezin daitekeen bideetatik. Gaurkoa bide horretatik doa: goroldioa, jogurta, garagardoa eta azukrea nahastuta, halako "margo" bat egin eta hori paretaren gainean jarritz, denbora baten ondoren marrazkia bizirik sortuko da paretan.

hastu dena halako nahasketa bat lortu arte. Badugu margoa, orain pareta bilatu behar.

Iparralderantz begiratzen duen pareta bat bilatu eta gure marrazki egin ostean, noizean behin ureztatu behar dugu gure "eko-graffittia".

Denbora baten ondoren, bizirik dagoen arte lana izanen duzu zure herri edo etxean!

Nola egin nahiko erraza da: lehenik eta behin goroldioa hartu behar dugu, baina ez edonondik. Jakin badakigu goroldioak paper garrantzitsua betetzen duela basoko ekosisteman: lekuan lekuko oreka hidrologikoari eusten dio, eta lurraren egonkortasunaren arduraduna da.

Basoko goroldiorik ez dugu hartuko, alde batetik, errespetatu behar dugulako bertako oreka eta, bestetik, interesgarriagoa delako pareta eta harrietan ateratzen dena, zergatik? Pareta batean egingo dugulako gure arte lana.

Beraz, herriko bidexka edo iparralderantz dagoen txoko bat bilatu eta goroldio poltsatxo bat hartu. Ur-azpian garbitzea garrantzitsua da, ahalik eta lur gehien kentzeko, goroldioa garbi-garbi utziz. Pote handi bat hartu eta bertan nahasi behar dituzue goroldio garbia, jogurta, garagardo erdi bat eta pare bat koilaratxo azukre. Irabiagailu batekin na-

GOROLDIO GRAFFITTIA

- 1 3 handfuls moss
- 2 3 c (700 ml) lukewarm water
- 3 2 tsp water retention gel
- 4 2-3 min
- 5 1/2 c (120 ml) buttermilk
- 6
- 7
- 8

ecocosas.com



2016eko Azaroa

Gure alderdian izan ziren jaiotzak ,ezkontzak eta heriotzak

JAIOTZAK
BASABURUA
GARTZARON
 Enaitz Fernandez Legarra, Carlos eta Amaia semea, 2016ko azaroaren 7an jaioa, *Martxo-nea*.

IMOTZ
 Eder Uritz Okiñena, Ruben eta Maria Angeles semea, 2016ko azaroaren 23an jaioa, *Goi-tikoetxean*.

LANTZ
 Izargi Mariezkurrena Mariezkurrena, Mikel eta Birjiniarena alaba, 2016ko azaroaren 19an jaioa, *Apezenean*.

Ongi etorri jaio berriei eta zorionak beren gurasoei!

EZKONTZAK
ULTZAMA
AUZA
 Imanol Apaolaza Santz, Uharte Arakilgoa eta Itziar Beratsain Erro, Auzakoa. Ezkontza eguna: 2016ko azaroaren 26an. Lakuntzan jarri dira bizitzen.

Mila Zorion, eta anitz urtez.

HERIOTZAK
ULTZAMA
IRAIZOTZ
 Francisco Irigoien Mariñelarena, 2016ko azaroaren 16an hil zen. *Etxeberrikoa, orain Sotillenean bizi zena.*

Gure oroimenean izanen zara.



Enaitz, familia osoarekin.



Izargi Mariezkurrena, erregalorik onena.



Francisco Irigoien



Eder, herriko poza izanen da.

Fontaneria Arriazu
 REFORMAS COCINAS Y BAÑOS-CALDERAS LEÑA Y GAS- INSTALACION
 DESCALCIFICADORES
FONTANERIA Y CALEFACCIÓN AROZTEGI (ATEZ)
 fontaneriaarriazu@gmail.com
 Tno. 676 163780
 www.fontaneriaarriazu.es

NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz
 Tailer mugikorra
 Pneumatikoen aldaketa
 Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A
Aizarotz (Basaburua)

info@neumaticosbetelu.es
646 47 41 66

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure pneumatikoak konpontzera
 -Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
 -Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



KARI KOLAR
 ELEKTRIZITATEA

Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
 Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
 Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
 ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835 Lizaso karikolaregoitz@gmail.com

DABID ELIZONDO PINTURAK
 DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
 TEL.: 678 623866
 argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
 fatxadak zaharberitzea
 iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
 kalitatea eta garbitasuna
 aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ

**ESKER MILE
ZOKETA MUNDIALEAN
PARTE HARTU DUZUEN GUZTIOI!**



**ESKER MILE
PULUNPE ALDIZKARIA ETA
ESAN ERRAN IRRATIA
LAGUNTZEAGATIK!**